



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Etxebizitza babestuen esleipendunen ikusmoldea

etxebizitzaren euskal behatokia

2015

eskatazailleak

1. SARRERA ETA METODOLOGIA	6
2. ETXEBIZITZA BABESTUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN	8
3. INKESTA EGIN ZAIEN BIZTANLE ESLEIPENDUNEN EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOEN ADIERAZLEAK	10
3.1. Esleitutako etxebizitzaren titularraren ezaugarriak	10
3.2. Egungo lan-egoera eta egoera ekonomikoa	14
4. ETXEBIZITZAREN BEHARRARI EMANDAKO ERANTZUNAREN ETA ETXEBIZITZAREKIKO GOGOBETETASUNAREN ADIERAZLEAK	19
4.1. Beharraren estalduraren adierazleak.....	19
4.2. Egungo etxebizitza-beharrak.....	20
4.3. Esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasuna.....	21
4.3.1. Etxebizitzarekiko gogobetetasun orokorra	21
4.3.2. Etxebizitza babestuaren kalitate/prezio erlazioaren balorazioa	22
4.3.3. Erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzaren balorazioa	24
4.3.4. Alokairuan esleitutako etxebizitzaren balorazioa	25
4.3.5. Etxebizitzaren ezaugarriekiko gogobetetasuna.....	29
4.4. Esleitutako etxebizitzetan izandako arazoak edo gorabeherak eta horien konponbidea.....	32
5. ETXEBIDEREN, EUSKO JAURLARITZAREN ETA UDALEN BALORAZIO ADIERAZLEAK ETXEBIZITZA BABESTUAK ESLEITZEKO PROZESUAN	37
5.1. Etxebideren balorazio orokorra	37
5.2. Esleipen-prozesuaren balorazioa	38
5.3. Eusko Jaurlaritzak eta udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanaren balorazio orokorra	42
6. ADIERAZLEEN ANALISIA GENERO IKUSPEGITIK	47
6.1. Biztanle esleipendunen ezaugarriak	47
6.2. Beharraren estaldura eta etxebizitzarekiko gogobetetasuna	49
6.3. Etxebideren, Eusko Jaurlaritzaren eta udalen balorazioa esleipen-prozesuan	53
7. ONDORIO NAGUSIAK ETA HOBETZEKO GOMENDIOAK, ESLEIPENDUNEN IKUSPEGITIK BEGIRATUTA	57

TAULEN AURKIBIDEA

Orrialdea

1.1. taula.	EAEen etxebizitzaren esleipendun izan diren biztanleen inkestaren laginaren banaketa (2015)	6
2.1. taula.	EAEen eraikitzen amaitutako etxebizitza babestuen bilakaera lurralde historikoen eta edukitze-erregimenaren arabera (1982-2014).....	8
2.2. taula.	Alokabidek kudeatutako alokairuko etxebizitza-parkearen bilakaera (2007-2014)	9
3.1. taula.	Etxebizitzaren biztanle esleipendunen egungo ezaugarri soziodemografiko nagusiak (2015)	10
3.2. taula.	Etxebizitzaren esleipendun diren biztanleen familia-unitatearen ezaugarri nagusiak (2015)	12
3.3. taula.	Etxebizitzaren biztanle esleipendunen lan-egoera (2015).....	14
3.4. taula.	Familia-unitatearen hileko diru-sarrera garbier maila etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera	15
3.5. taula.	Esleitutako etxebizitza babestuaren ordainketari aurre egiteko zailtasuna eta egungo beharrak etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera	16
3.6. taula.	Laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten biztanle esleipendunak etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015)	17
4.1. taula.	Esleitutako etxebizitzaren bitartez bete den behar mota etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera	19
4.2. taula.	Esleitutako etxebizitza familia-unitatearen lehenengo etxebizitza da (etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera) (2015).....	20
4.3. taula.	Alokairuan esleitutako etxebizitzak epe ertainerako (5-10 urte) beharra betetzen duelako pertzepzioa etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera	20
4.4. taula.	Esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera	21
4.5. taula.	Etxebizitzaren kalitate/prezio erlazioaren balorazioa etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015).....	23
4.6. taula.	Esleitutako etxebizitzaren ezaugarriekiko batez besteko gogobetetasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015).....	29
4.7. taula.	Esleitutako etxebizitzetan izandako arazoak edo gorabehera negatiboak etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015).....	32
4.8. taula.	Esleitutako etxebizitzekin izandako arazo edo gorabehera mota etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015)	33
5.1. taula.	Biztanle esleipendunen Etxebideri buruzko balorazio orokorra (2015)	37
5.2. taula.	Eusko Jaurlaritzak etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emateari begira egiten duen lanaren balorazio orokorra etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015).....	42
5.3. taula.	Eusko Jaurlaritzak egungo etxebizitzaren egoera hobetzeko azpimarratu beharko litzuzkeen alderdiak lurralde historikoaren arabera (2015)	44
5.4. taula.	Eusko Jaurlaritzak egungo etxebizitzaren egoera hobetzeko azpimarratu beharko litzuzkeen alderdiak etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015).....	44
5.5. taula.	Udalek etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emateari begira egiten duten lanaren balorazio orokorra etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015).....	45
6.1. taula.	Biztanle esleipendunen banaketa generoaren eta etxebizitza motaren arabera (2015).....	47
7.1. taula.	Etxebideren bitartez egiten den etxebizitza babestuen esleipenari buruzko ebaluazio-adierazleen laburpen-etaula (2007-2015)	61

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Orrialdea

2.1. grafikoa.	Eraikitzen amaitutako etxebizitza babestuen bilakaera lurralde historikoen eta edukitze-erregimenaren arabera (datu metatua) (1982-2014)	9
3.1. grafikoa.	Etxebizitza babestuen esleipendunen batez besteko adina lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015)	11
3.2. grafikoa.	Etxebizitza babestuen esleipendun izan diren biztanle atzerritarrak lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015).....	12
3.3. grafikoa.	Biztanle ezkongabeen garrantzia lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015).....	13
3.4. grafikoa.	Etxebizitza babestuen biztanle esleipendunek osatutako familien batez besteko tamainaren bilakaera (2007-2015).....	13
3.5. grafikoa.	Etxebizitza babestuen biztanle esleipendunek osatutako familien batez besteko tamaina lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015).....	13
3.6. grafikoa.	Langabezian dauden biztanle esleipendunak lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015)	14
3.7. grafikoa.	Etxebizitza babestuen biztanle esleipendunen batez besteko diru-sarrerak lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015).....	15
3.8. grafikoa.	Esleitutako etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko egungo zailtasuna lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015).....	16
3.9. grafikoa.	Esleitutako etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko egungo zailtasuna lurralde historikoen eta edukitze-erregimenaren arabera (2013-2015).....	16
3.10. grafikoa.	Laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten biztanle esleipendunak lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015).....	17
3.11. grafikoa.	Etxebizitza babestuen esleipendunen profila edukitze-erregimenaren arabera	18
4.1. grafikoa.	Bete den behar mota (lehenengo etxebizitza eskuratzea edo ohiko etxebizitza aldatzea) (2010-2015).....	19
4.2. grafikoa.	Esleitutako etxebizitza familia-unitatearen lehenengo etxebizitza da (2014) (baiezkoen %).....	20
4.3. grafikoa.	Egungo etxebizitzak epe ertainerako (5-10 urte) beharra betetzen du (lurralde historikoen eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera).....	21
4.4. grafikoa.	Esleitutako etxebizitzarekiko batez besteko gogobetetasuna lurralde historikoen eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015).....	22
4.5. grafikoa.	Esleitutako etxebizitzaren kalitate/prezio erlazioaren batez besteko balorazioa	23
4.6. grafikoa.	Esleitutako etxebizitza erosteko finantzaketa lortzeko zailtasunak	24
4.7. grafikoa.	Erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari buruzko interesa erosketa-erregimeneko etxebizitzaren esleipendunen artean	24
4.8. grafikoa.	Esleitutako etxebizitza alokairuko izatearekiko gogobetetasuna	25
4.9. grafikoa.	Esleitutako etxebizitza alokairuko izatearekiko gogobetetasuna	25
4.10. grafikoa.	Erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari buruzko interesa alokairuko etxebizitzaren esleipendunen artean.....	26
4.11. grafikoa.	Ordainketa geroratuko etxebizitzari buruzko interesa alokairuko etxebizitza babestuen esleipendunen artean.....	27
4.12. grafikoa.	Jabetza partekatuko etxebizitzari buruzko interesa alokairuko etxebizitza babestuen esleipendunen artean.....	28
4.13. grafikoa.	Esleitutako etxebizitza babestuaren ezaugarriekiko batez besteko gogobetetasuna	29
4.14. grafikoa.	Esleitutako etxebizitza babestuaren ezaugarriekiko batez besteko gogobetetasunaren bilakaera (2010-2013).....	30
4.15. grafikoa.	Okupatutako etxebizitzaren ezaugarriekiko batez besteko gogobetetasuna lurralde historikoen arabera	30
4.16. grafikoa.	Okupatutako etxebizitzaren ezaugarriekiko batez besteko gogobetetasuna etxebizitza motaren arabera	31
4.17. grafikoa.	Esleitutako etxebizitzetan izandako gorabeherak edo arazoak. 2007-2015eko bilakaera	32
4.18. grafikoa.	Esleitutako etxebizitzetan izandako gorabeherak edo arazoak lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015).....	33
4.19. grafikoa.	Gorabehera edo arazoa konpontzeko etxebizitzaren sustatzailearekin harremanetan jarri direnak lurralde historikoen eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera.....	34
4.20. grafikoa.	Jasotako erantzunari buruzko batez besteko gogobetetasuna lurralde historikoen eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera	34
4.21. grafikoa.	Jasotako erantzunari buruzko batez besteko gogobetetasunaren bilakaera (2007-2015).....	35
4.22. grafikoa.	Beharraren estalduraren adierazleak eta etxebizitza babestuekiko gogobetetasuna edukitze-erregimenaren arabera	36

5.1. grafikoa.	Biztanle esleipendunen Etxebideri buruzko balorazio orokorra (2015)	37
5.2. grafikoa.	Etxebideri buruzko batez besteko balorazioa lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera	38
5.3. grafikoa.	Esleipen-prozesuaren balorazio orokorra etxebizitza babestuen esleipendunen artean	39
5.4. grafikoa.	Esleipen-prozesuak behar bezain argiak eta gardenak izatearekiko adostasuna	40
5.5. grafikoa.	Esleipen-prozesuarekiko batez besteko gogobetetasuna etxebizitza babestuen esleipendunen artean	41
5.6. grafikoa.	Esleipen-prozesuaren funtsezko alderdiekiko batez besteko gogobetetasuna lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera	41
5.7. grafikoa.	Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean egiten duen lanari buruz esleipendunek egiten duten batez besteko balorazioa lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera	43
5.8. grafikoa.	Eusko Jaurlaritzak egungo etxebizitzaren egoera hobetzeko azpimarratu beharko lituzkeen alderdiak (2015).....	43
5.9. grafikoa.	Udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanari buruz esleipendunek egiten duten batez besteko balorazioa lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera	45
5.10. grafikoa.	Etxebideren, Eusko Jaurlaritzaren eta udalen balorazio-adierazleak etxebizitza babestuak esleitzeko prozesuan.....	46
6.1. grafikoa.	Etxebizitza babestuen esleipendun diren emakume eta gizonen ezaugarri soziodemografikoak	48
6.2. grafikoa.	Etxebizitza babestuen esleipendun diren emakume eta gizonen lan-egoera eta baldintza ekonomikoak.....	49
6.3. grafikoa.	Gizon eta emakume esleipendunen artean ase den etxebizitzaren behar mota	50
6.4. grafikoa.	Esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasuna generoaren arabera	51
6.5. grafikoa.	Erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzaren balorazioa generoaren arabera	52
6.6. grafikoa.	Alokairuan esleitutako etxebizitzaren balorazioa generoaren arabera	52
6.7. grafikoa.	Etxebizitzan izandako gorabeherak eta horien konponbidea generoaren arabera	53
6.8. grafikoa.	Etxebideren balorazio orokorra generoaren arabera	53
6.9. grafikoa.	Esleipen-prozesuaren balorazioa generoaren arabera.....	54
6.10. grafikoa.	Eusko Jaurlaritzaren eta udalen lanaren balorazio orokorra generoaren arabera	55
6.11. grafikoa.	Eusko Jaurlaritzak egiten duen lanean hobetu beharreko alderdi nagusiak generoaren arabera	55
6.12. grafikoa.	Biztanle esleipendunei buruzko adierazleak, genero-ikuspegitik begiratuta	56

1. SARRERA ETA METODOLOGIA

Politika Publikoak Ebaluatzeko Proiektuaren esparruan, 2015. urtean ere Inkesta bat egin da EAEn etxebizitza baten esleipendun izan diren biztanleen artean, etxebizitza babestu bat eskuratu duten pertsonen iritzia eta gogobetetasun-maila ezagutzeko helburuarekin.

Lehenik, EAEn etxebizitza babestuaren eraikuntzaren daturik garrantzitsuenak eskaintzen ditu txostenak, eta arreta berezia jarri da eraikitzen amaitutako etxebizitza babestuak berriki ezagutu duen bilakaeran, lurralde historikoak eta eskuratze-erregimena (alokairua eta erosketa) bereiziz. Txostenaren gainerakoa lantzeko, inkesta egin zien etxebizitza babestuaren biztanle esleipendunek emandako informazioa erabili da.

Inkesta 2015eko ekainean egin zaie 2011-2014 aldian etxebizitza babestu baten esleipendun izan diren 444 pertsonari. Horri esker, emaitzen analisia % 5eko errore-marjinarekin egin ahal izan da (% 95,5eko konfiantza-mailarekin). Lurralde historikoak eta etxebizitza mota kontuan hartuta banatu da lagina. Ondorengo taulan ikus daiteke azken lagina nola geratu den banatuta. Datuei ondoren emandako tratamenduari dagokionez, laginaren haztapena egiteko kontuan hartu da unibertsoak etxebizitza motaren arabera eta lurralde historikoaren arabera izan duen banaketa.

1.1. taula. EAEn etxebizitzaren esleipendun izan diren biztanleen inkestaren laginaren banaketa (2015)

	Kopurua	% bertikala
LURRALDE HISTORIKOA		
Araba	136	30,6
Bizkaia	178	40,1
Gipuzkoa	130	29,3
ETXEBIZITZA MOTA		
Erosketa	155	34,9
Alokairua	289	65,1
Alokabide	73	16,4
Eusko Jaurlaritza	75	16,9
Bizigune	93	20,9
ASAP	48	10,8
GUZTIRA	444	100,0

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza babestuen biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015)

Biztanle esleipendunei buruzko txosten honetan egindako analisiak honako helburu hauei erantzutea du xede:

- EAEn esleitutako etxebizitza babestuen bilakaera ezagutzea etxebizitza babestuen eraikuntzari buruzko datuak eta alokairu babestuko parkeari buruzkoak oinarri hartuta.
- Biztanle esleipendunen ezaugarri soziodemografikoetara eta bizitegi-ezaugarrietara hurbiltzea, eta haien egungo egoera ekonomikoa zein den eta etxebizitza babestuen ordainketari aurre egiteko zer-nolako zailtasunak dituzten jakitea. Eta etxebizitza babestua eskuratzeko erregimenaren arabera (alokairua edo erosketa) bereizitako profilak dauden ikertzea.
- Esleitutako etxebizitzak betetako behar mota analizatzea eta epe ertainean berriz etxebizitza-beharra izatea aurreikusten duen kolektiboa zenbatatea.

- Etxebizitzarekiko gogobetetasunean, kalitate/prezio erlazioari buruzko balorazioan eta etxebizitzaren ezaugarriekiko gogobetetasunean sakontzea. Asmoa da, halaber, etxebizitzetan hautemandako gorabehera edo arazoan maila eta haien tipologia zenbatestea eta horien konponbidea baloratzea.
- Biztanle esleipendunek Etxebideri eta etxebizitza babestuak esleitzeko prozesuari buruz egiten duten balorazio orokorra biltzea eta Eusko Jaurlaritzaren eta udalen etxebizitza-arloko jarduketari buruz duten iritzia jakitea. Eta biztanle esleipendunen iritziz Eusko Jaurlaritzak hobetu behar dituen gai batzuk zehaztea.
- Inkestaren emaitzak genero-ikuspuntutik analizatzea.

Analisi osoan zehar arreta berezia eskaini zaio biztanle esleipendunek emandako iritzien edo egindako balorazioen denbora-ikuspegiari (2007-2015 aldia¹). Era berean, lurralde historikoen eta esleitutako etxebizitza motaren (erosketa edo alokairua) arabera dauden desberdintasunak ikertu nahi izan dira. Dokumentuan gehitu da, halaber, Etxebiden izena eman zuten biztanleek 2014an egindako inkestan² egin zituzten balorazioekiko datu nagusien konparazioa.

Txostena amaitzeko, emaitza nagusiak atal batean laburbildu dira eta hobetzeko gomendioen zerrenda gehitu da.

¹ Aurreko inkestetako datuekiko konparazioa kontu handiz hartu behar da, aurreko edizioetan inkesta egiten ez zitzaizkion Bizigune eta ASAP programetako maizterrak ere sartu baitira inkestan 2015eko edizio honetan.

² Etxebiden izena eman duten biztanleei egindako inkesta (2014).

2. ETXEBIZITZA BABESTUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

EAEEn Eraikitzen Hasitako eta Amaitutako Etxebizitzen Estatistikak (EHAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntza berriko etxebizitza babestuen parkea dimentsionatzea ahalbidetzen du.

2014an guztira 2.239 etxebizitza amaitu dira. Kopurua aurreko urtean erregistratutakoa (1.842 etxebizitza amaitu ziren 2013an) baino handiagoa da, baina aurreko urteetan amaitutako etxebizitza-bolumena baino txikiagoa da oraindik ere. Zehazki, 2014an 588 etxebizitza amaitu dira Araban, 912 Bizkaian eta 739 Gipuzkoan. Edukitze-erregimenari dagozkionez, 2014an alokairuko 633 etxebizitza eta erosteko 1.606 etxebizitza eraiki dira.

EAEko etxebizitza babestuen eraikuntzak goranzko joera izan du 2011. urtea arte, eta 2013. urtean hasi da behera egiten urtean amaitutako etxebizitza kopurua.

2011 eta 2014 artean 13.389 etxebizitza babestu amaitu dira EAEen; etxebizitza horiek inkesta zuzendu zaien pertsoneri esleitu zaizkie. Aldi horretan amaitutako etxebizitzen % 39 Araban daude, % 27 Bizkaian eta % 33 Gipuzkoan. Edukitze-erregimenari dagokionez, 2011 eta 2014 artean alokairuko 2.669 etxebizitza (eraikitako parkearen % 20) eta erosteko 10.720 etxebizitza amaitu dira.


Denbora-ikuspegi zabalagotik begiratuta (1982tik 2014ra), EAEen gutxi gorabehera 105.000 etxebizitza babestu eraiki dira, eta horietatik 12.426 alokairukoak dira (guztizkoaren % 12).

2.1. taula. EAEen eraikitzen amaitutako etxebizitza babestuen bilakaera lurralde historikoen eta edukitze-erregimenaren arabera (1982-2014)

	(1982-2010)	2011	2012	2013	2014	2011-2014 guztira	1982-2014 guztira
LURRALDE HISTORIKOAK							
Araba	30.466	2.432	1.700	515	588	5.235	35.701
Bizkaia	37.392	1.125	1.003	630	912	3.670	41.062
Gipuzkoa	23.180	1.916	1.132	697	739	4.484	27.664
GUZTIRA	91.038	5.473	3.835	1.842	2.239	13.389	104.427
EDUKITZE ERREGIMENA							
Alokairua	9.757	1.117	502	417	633	2.669	12.426
Erosketa	81.281	4.356	3.333	1.425	1.606	10.720	92.001
GUZTIRA	91.038	5.473	3.835	1.842	2.239	13.389	104.427

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza.

2.1. grafikoa. Eraikitzen amaitutako etxebizitza babestuen bilakaera lurralde historikoen eta edukitze-erregimenaren arabera (datu metatua) (1982-2014)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza.

Eraikuntza berriko etxebizitza babestuen esleipenaz gain, balioa eman nahi zaio alokairu babestuko parkearen kudeaketari eta merkatu libreko etxebizitza erabilien esleipenari. Alokabidek kudeatutako alokairuko parkea 11.355 etxebizitzakoa da 2014an. Horietatik 4.590 Bizigune programari dagozkio eta 142 ASAP programari, zeinek merkatu libreko etxebizitza hutsak mobilizatzen baitituzte Etxebideren etxebizitza babestuen eskatzaileei alokatzeko. Kolektibo horrek ere parte hartu du azterketa honetan.

2.2. taula. Alokabidek kudeatutako alokairuko etxebizitza-parkearen bilakaera (2007-2014)

Etxebizitza kopurua	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Alokabideren etxebizitzak	1.364	1.670	1.984	2.452	2.677	3.070	3.280	3.540
Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzak	1.973	2.179	2.231	2.257	2.577	2.697	2.817	2.935
Udalen etxebizitzak	111	111	133	57	78	156	148	148
Biziguneren etxebizitzak	3.144	4.053	4.510	4.573	4.840	5.150	5.174	4.590
ASAPen etxebizitzak	--	--	--	--	--	--	--	142
Etxebizitzak guztira	6.592	8.013	8.858	9.339	10.172	11.073	11.419	11.355

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza.

3. INKESTA EGIN ZAIEN BIZTANLE ESLEIPENDUNEN EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOEN ADIERAZLEAK

Kapitulu honetan, gaur egun EAEn etxebizitza babestu baten esleipendun diren biztanleen ezaugarri sozioekonomiko nagusiak azalduko dira. Esleitutako etxebizitzaren titularraren profila, familia-unitateari buruzko datuak eta biztanle esleipendunen egungo egoera ekonomikoa deskribatuko dira. Atalean arreta berezia eskainiko zaie esleitutako etxebizitzaren erregimenaren arabera profilean dauden desberdintasunei.

3.1. Esleitutako etxebizitzaren titularraren ezaugarriak

Azterketan parte hartu duten esleipendun guztien % 57 emakumeak izan dira eta % 43 gizonak. 7. kapituluan inkestaren emaitzen analisi espezifikoak egin da, genero-ikuspegia kontuan hartuta.

Adin-taldeen arabera, inkestatik ondoriozta daitekeenez, jende gehien biltzen duen tarteak 35 eta 44 urteko adinen artean dagoena da, etxebizitza babestuen titularraren % 36 baitaude tarte horretan. Datuak berresten dute hiru esleipendunetik bat gaztea dela (35 urte baino gutxiago). Proportzio hori txikiagoa da adin-tarte horrek Etxebiden izena eman duten biztanleen artean duen pisua baino (2014an % 47).

3.1. taula. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen egungo ezaugarri soziodemografiko nagusiak (2015)


% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
SEXUA			
Emakumezkoa	51,6	64,3	57,3
Gizonezkoa	48,4	35,7	42,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
EGUNGO ADINA			
< 30 urte	12,1	2,3	7,8
30-34 urte	47,2	9,0	30,2
35-44 urte	33,7	38,2	35,7
45-64 urte	7,0	40,7	21,9
65 urte eta gehiago	0,0	9,9	4,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
BATEZ BESTEKO ADINA (urteak)	34,7	46,9	40,2
NAZIONALITATEA			
Espainola	98,6	77,0	89,0
Atzerritarra	0,5	12,9	6,1
Biak	0,8	10,1	5,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Biztanle esleipendunen batez besteko adina 40 urtekoa da. Batez besteko horrek goranzko joera nabarmena izan du, 2007ko 34 urteko batez bestekotik abiatu eta 2015eko 40 urtekora iritsi arte. Biztanle esleipendunen egungo batez besteko hori Etxebiden izena eman duten biztanleen artean zenbatetsitakoa (38 urte batez beste 2014an) baino handixeagoa da.

Egungo biztanle esleipendunen batez besteko adina oso antzekoa da lurralde historikoen arabera. Desberdintasun handiak daude, ordea, eskuratu den etxebizitza mota kontuan hartzen bada. Erosteko etxebizitzak esleitu zaizkien biztanleak askoz ere gazteagoak dira (35 urte) alokairu babestuko etxebizitzak eskuratu dituzten biztanleak baino (47 urte batez beste), alokairuko kasuen artean handiagoa baita 45 urte edo gehiagoko titularra duten familien proportzioa.

3.1. grafikoa. Etxebizitza babestuen esleipendunen batez besteko adina lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015)




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Esleipendunaren nazionalitateari dagokionez³, inkestak nabarmentzen du jatorriz atzerritarrek diren kolektiboaren % 11 dela. Zehazki, % 5ek nazionalitate atzerritarra dute eta % 6k bi nazionalitateak dituzte. Jatorriz atzerritarrek diren biztanle horien presentzia handiagoa da Araban esleitutako etxebizitzetan eta alokairuan esleitutakoetan. Izan ere, erosteko etxebizitzetan ia esleipendun guztiak nazionalitate espainolekoak dira (% 99). Alokairuko etxebizitzetan kasuan, jatorriz atzerritarrek diren biztanleak % 23 dira eta nazionalitate espainoleko biztanleak % 77.

³ Nazionalitatearen datua kontu handiz hartu behar da, biztanle atzerritarrek zailtasun handiagoak baitituzte inkestak egiteko prozesuetan parte hartzeko.

3.2. grafikoa. Etxebizitza babestuen esleipendun izan diren biztanle atzerritarrak lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Etxebizitza babestuen titularren % 56,5 ezkongabeak dira. Proportzio hori Etxebiden izena eman duten biztanleen artean erregistratutakoa (2014an % 64) baino txikiagoa da. Ezkongabeen proportzioa askoz ere handiagoa da erosteko etxebizitzaren esleipendunen artean (% 71) alokatzeko artean baino (% 39).


Biztanle ezkonduak esleipendunen % 23 dira eta pisu handiagoa dute alokairu babestuko parkean bizi diren familien artean. Biztanle bananduak edo dibortziatuak, bestalde, kolektiboaren % 11 dira eta alargunak % 4. Bi zifra horiek handiagoak dira familia errentarien artean jabeen artean baino.

3.2. taula. Etxebizitzaren esleipendun diren biztanleen familia-unitatearen ezaugarri nagusiak (2015)

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
EGOERA ZIBILA			
Ezkongabea	70,9	38,7	56,5
Ezkondua	18,9	28,8	23,3
Izatezko bikote erregistratua	6,5	4,0	5,4
Banandua/Dibortziatua	3,8	20,0	11,0
Alarguna	0,0	8,4	3,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
FAMILIA-UNITATEAREN TAMAINA			
Pertsona bakarra	39,6	35,3	37,7
Bi pertsona	36,3	27,5	32,4
Hiru pertsona	13,0	14,2	13,5
Lau pertsona	7,6	6,3	7,0
Bost pertsona edo gehiago	3,5	16,7	9,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
FAMILIAREN BATEZ BESTEKO TAMAINA	2,0	2,5	2,2

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

3.3. grafikoa. Biztanle ezkongabeen garrantzia lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015)




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Inkestaren emaitzen arabera, familia-unitate esleipendunen % 38 pertsona bakar batek osatutakoak dira; proportzio hori Etxebiden izena eman duten pertsona bakarrek familia-unitateena (etxebizitza babestuen eskaeren % 67 dira 2014an) baino dezente txikiagoa da. Aipatu beharra dago, halaber, biztanle esleipendunen % 32k 2 pertsonako familia osatzen dutela, % 13,5ek hirukoa eta % 16k lau kideko edo gehiagoko familia.


Etxebizitza babestu batean bizi diren familien tamaina 2 pertsonakoa da batez beste. Eraitza hori zertxobait handiagoa da alokairuko etxebizitza babestuetan bizi diren familien artean (2,4 pertsona familiako). Alde esanguratsuak daude esparru geografiko batetik bestera etxebizitzan bizi den pertsona kopuruari dagokionez. Hala, Arabako familia esleipendunen kasuan etxebizitzako 2,7 pertsona daude eta Bizkaian eta Gipuzkoan 2,1 eta 2 pertsona hurrenez hurren.

3.4. grafikoa. Etxebizitza babestuen biztanle esleipendunek osatutako familien batez besteko taimainaren bilakaera (2007-2015)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

3.5. grafikoa. Etxebizitza babestuen biztanle esleipendunek osatutako familien batez besteko taimaina lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

3.2. Egungo lan-egoera eta egoera ekonomikoa

Etxebizitza babestuen esleipendun diren biztanleen % 41 kontratu finkoarekin ari dira lanean, % 19,5ek aldi baterako enplegua dute eta % 6k adierazten dute beren kontura lan egiten dutela. Langabeziak kasuen % 19 hartzen ditu eraginpean. Eraitza hori Etxebiden izena eman duten biztanleen artean erregistratutakoa (% 25,5 langabezian zeuden 2014an) baino txikixeagoa da.

Esleipendunen lan-egoeraren analisiak alde esanguratsuak nabarmentzen ditu etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera. Erosita eskuratzten dutenen artean, % 59 dira kontratu finkoarekin lanean ari direnak eta proportzio hori % 19raino jaisten da etxebizitza babestu bat errentan hartu dutenen artean.


Langabezia askoz ere hedatuago dago errentarien artean erositako etxebizitza baten esleipendunen artean baino. Zehazki, alokairuko kasuen % 26 langabezian daude eta proportzio hori % 13koa da jabetzako etxebizitza baten esleipendunen artean. Etxeko lanetan aritzea edo gizarte-laguntza jasotzea neurri handiagoan aipatzen da parke babestuaren errentarien artean jabetzako etxebizitza dutenen artean baino.

3.3. taula. Etxebizitzaren biztanle esleipendunen lan-egoera (2015)

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
EGUNGO LAN EGOERA			
Bere kontura egiten du lan	4,8	7,6	6,1
Lanean, lan finkoa	59,3	18,9	41,2
Lanean, aldi baterako lana	21,1	17,6	19,5
Langabea	13,0	26,3	18,9
Erretiratu edo pentsioduna	1,3	16,8	8,2
Beste egoera bat	0,5	12,7	6,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

3.6. grafikoa. Langabezian dauden biztanle esleipendunak lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).


Inkestan parte hartu duten biztanle esleipendunek berek emandako informazioaren arabera, hileko diru-sarrerak 1.344 euro garbikoak dira batez beste. Esparru geografikoen arabera, diru-sarreraren maila oso antzekoa da hiru lurralde historikoetan. Alabaina, oso emaitza desberdinak lortzen dira alokairuko eta erosketako esleipenen artean. Izan ere, erosketako etxebizitza babestuen esleipendun diren biztanleen egungo diru-sarreraren maila (1.651 euro) alokairu babestuko parkean bizi diren biztanleena (hilean 940 euro batez beste) baino askoz ere handiagoa da. Errentarien artean ere aldeak daude egungo diru-sarreraren mailan: Biziguneren errentarien 855 euroko batez bestekoaren eta ASAP programakoen 1.514 euroen artean mugitzen dira.

3.4. taula. Familia-unitatearen hileko diru-sarrera garbien maila etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
630 euro arte	0,0	13,7	6,0
631-720 euro	0,5	8,5	4,1
721-840 euro	0,0	15,2	6,8
841-990 euro	3,8	17,1	9,7
991-1.140 euro	7,3	18,5	12,3
1.141-1.290 euro	11,1	5,6	8,6
1.291-1.410 euro	12,4	6,9	9,9
1.411-1.650 euro	15,4	3,1	9,9
1.651-2.160 euro	21,0	1,6	12,3
2.160 euro baino gehiago	24,3	0,2	13,6
Ed/Ee	4,3	9,7	6,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
BATEZ BESTEKO DIRU-SARRERAK (EUROTAN)	1.650,6	939,51	1.344,4

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

3.7. grafikoa. Etxebizitza babestuen biztanle esleipendunen batez besteko diru-sarrerak lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko zailtasunari dagokionez, adierazi beharra dago biztanle esleipendunen % 23k baieztatzen duela egoera horretan dagoela.

Une honetan etxebizitza babestuen ordainketei aurre egiteko zailtasunak askoz ere handiagoak dira alokairuko kasuen artean (% 40) erosketakoen artean (% 9,5) baino. Alokairuko etxebizitza motaren arabera, esan daiteke arazoek eraginpean hartzen dituztela Biziguneren parkearen esleipendunen % 48 eta Alokabideren etxebizitza propioen % 40.


Esparru geografikoei dagokienez, aipatu beharra dago etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko arazoak dituzten biztanleen % 37 Gipuzkoan daudela, % 19 Araban eta % 22 Bizkaian.

3.5. taula. Esleitutako etxebizitza babestuaren ordainketari aurre egiteko zailtasuna eta egungo beharrak etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
GAUR EGUN ZAILTASUNAK DITU ETXEBIZITZA BABESTUAREN ORDAINKETEI AURRE EGITEKO			
Bai	9,5	39,7	23,0
Ez	89,7	54,8	74,1
Oraindik ez	0,8	5,5	2,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).


3.8. grafikoa. Esleitutako etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko egungo zailtasuna lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

2013 eta 2015 artean nabarmenki egin du gora etxebizitza babestuaren ordainketei aurre egiteko zailtasunak dituzten biztanle esleipendunen kopuruak. 2012ko % 12,5etik egungo % 23ra pasatu da. Aldi horretan bertan, zailtasunek gora egin dute hiru lurralde historikoetan eta etxebizitza propioa edo alokatua duten biztanleen artean.

3.9. grafikoa. Esleitutako etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko egungo zailtasuna lurralde historikoen eta edukitze-erregimenaren arabera (2013-2015)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Inkesta egin zaien biztanle esleipendunen % 20k baieztatu dute laguntza ekonomikoren bat jasotzen dutela. Proportzio hori % 26koa da Arabako kasuen artean, % 22koa Bizkaikoen artean, eta biztanle esleipendunen % 10eraino jaisten da Gipuzkoan.

Etxebizitza motaren arabera, laguntza ekonomikoren hartzaileen artean oso maila desberdinak ikus daitezke: etxebizitza babestua erosi duten biztanleen artean erregistratutako minimoaren (% 7) eta alokairuko % 35ean artean mugitzen dira.


Bestalde, zehaztu beharra dago Alokabideren etxebizitzak alokatzen dituzten familien % 37k eta Biziguneren parkearen % 38k laguntza ekonomikoren bat jasotzen dutela gaur egun.

3.6. taula. Laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten biztanle esleipendunak etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015)

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
LAGUNTZA EKONOMIKOA JASOTZEN DU			
Bai	7,0	35,2	19,6
Ez	93,0	64,8	80,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).


3.10. grafikoa. Laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten biztanle esleipendunak lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Inkestaren datuek berresten dute biztanle esleipendunen profil soziodemografikoak eta ekonomikoak ezaugarri bereizgarriak dituela esleitutako etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera.

3.11. grafikoa. Etxebizitza babestuen esleipendunen profila edukitze-erregimenaren arabera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

4. ETXEBIZITZAREN BEHARRARI EMANDAKO ERANTZUNAREN ETA ETXEBIZITZAREKIKO GOGOBETETASUNAREN ADIERAZLEAK

Ondoren, esleitutako etxebizitzaren bitartez bete den behar mota deskribatuko da eta etxebizitza babestu batean bizi diren biztanleei kontsulta egingo zaie epe ertainean duten etxebizitza-beharraren gainean. Bestalde, esleitutako etxebizitzarekiko eta haren ezaugarriekiko gogobetetasun orokorra zenbatetsiko da. Atala amaitzeko, etxebizitzetan hautemandako arazoak edo gorabeherak aztertuko dira eta horiei emandako konponbidearen balorazioa egingo da.

4.1. Beharraren estalduraren adierazleak

Gutxi gorabehera bi esleipendunetik batek (% 53) adierazten du esleitutako etxebizitza babestua familia-unitateak okupatzen duen lehenengoa dela. Gainerako % 47rentzat esleitutako etxebizitzak ohiko etxebizitzaren aldaketa ekarri du.

Etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera ikus daiteke lehen etxebizitza eskuratzeko delako erostetaren esleipendunen artean ase den behar nagusia (% 69). Errentamendu-erregimenean dauden biztanleen kasuan, aldiz, etxebizitza aldatzeko beharra ase izana da gehienek eman duten erantzuna. Zehazkiago, alokairuko kasuen % 33k baieztatzen dute familiaren lehenengo etxebizitza dela eta % 67 dira ezetz erantzuten dutenak.


4.1. taula. Esleitutako etxebizitzaren bitartez bete den behar mota etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
FAMILIA-UNITATEAREN LEHENENGO ETXEBIZITZA			
Bai	68,6	33,0	52,7
Ez	31,4	67,0	47,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Bilakaerari dagokionez, datuek adierazten dute 2010 eta 2015 artean gora egin duela beste etxebizitza batean bizi ziren eta etxebizitza babestuari esker ohiko etxebizitza aldatzeko aukera izan dutenen kopuruak. Horren ondorioz, behera egin du lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra merkatu babestuaren bitartez bete duten biztanleen kolektiboak.

4.1. grafikoa. Bete den behar mota (lehenengo etxebizitza eskuratzeko edo ohiko etxebizitza aldatzeko) (2010-2015)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).


Lehenengo etxebizitza eskuratzen duten eta etxebizitza aldatzen duten biztanleen arteko dualtasuna oso antzekoa da hiru esparru geografikoetan. Emaitzek alde esanguratsuak erakusten dituzte, alabaina, etxebizitza motaren arabera. Hala, erositako etxebizitzaren esleipendunen % 69rentzat egungo etxebizitza familia-unitatearen lehenengoa da; proportzio hori % 33ra jaisten da alokairuko kasuetan. Errentamendu motaren arabera, lehenengo etxebizitza eskuratzen duten familiak % 26 dira Biziguneren etxebizitzetan bizi diren familien kasuan eta % 42,5 Alokabideren etxebizitzetan bizi diren artean.

4.2. taula. Esleitutako etxebizitza familia-unitatearen lehenengo etxebizitza da (etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera) (2015)

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
LAGUNTZA EKONOMIKOA JASOTZEN DU			
Bai	68,6	33,0	52,7
Ez	31,4	67,0	47,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

4.2. grafikoa. Esleitutako etxebizitza familia-unitatearen lehenengo etxebizitza da (2014) (baiezkoen %)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

4.2. Egungo etxebizitza-beharrak

Biztanle esleipendunei kontsultatu zaie egungo etxebizitzak haien epe ertainerako beharrak (5-10 urte) betetzen dituen. Inkestaren emaitzetatik ondoriozta daitekeenez, biztanleen % 82k uste du hala dela, esleitutako etxebizitza babestuak beren epe ertainerako beharrak betetzen dituela.


4.3. taula. Alokairuan esleitutako etxebizitzak epe ertainerako (5-10 urte) beharra betetzen duelako pertzepzioa etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
ESLEITU DIZUTEN ETXEBIZITZA HONEK BETETZEN DITU ZURE BEHARRAK?			
Bai	85,7	77,8	82,2
Ez	13,5	16,9	15,0
Ed/Ee	0,8	5,3	2,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Eskuratu duen etxebizitza motak baldintzatu egiten du esleitu dioten etxebizitzak gaur egun epe ertainerako etxebizitza-beharrei erantzuten dielako pertzepzioa. Betetako beharra % 86koa da erositako etxebizitzan eta % 78koa alokairuaren kasuan. Alokairu babestuko parkearen modalitateen artean, betetako beharra % 91koa da Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzetan bizi diren familien artean eta % 85ekoa Alokabideren kasuan. Aitzitik, proportzioa % 63,5era eta % 66ra jaisten da Bizigune eta ASAP programen etxebizitza libreetan bizi diren biztanleen artean.

4.3. grafikoa. Egungo etxebizitzak epe ertainerako (5-10 urte) beharra betetzen du (lurralde historikoen eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

4.3. Esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasuna

4.3.1. Etxebizitzarekiko gogobetetasun orokorra

Oro har, esleipendunek adierazten dutenez, oso gustura daude esleitutako etxebizitzarekin. Zehazkiago, % 87k adierazten dute oso edo nahiko gustura daudela esleitutako etxebizitzarekin, eta kasuen % 12,5ean besterik ez dituzte egiten balorazio negatiboak. Horiek horrela, 0-100 eskala batean (gogobetetasunik ez - gogobetetasun handia), batez besteko gogobetetasuna 73 puntukoa da jabetzako etxebizitzaren kasuan eta 76 puntukoa etxebizitza alokairuan eskuratzen denean.

4.4. taula. Esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera


% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
ETXEBIZITZAREKIKO GOGOBEETASUN-MAILA			
Oso ona	35,0	41,1	37,7
Ona	50,6	48,0	49,4
Txarra	12,3	9,3	11,0
Oso txarra	1,4	1,7	1,5
Ed/Ee	0,8	0,0	0,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
BATEZ BESTEKO GOGOBEETASUNA. INDIZEA: 0-100	73,4	76,2	74,6

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Esleitutako etxebizitzarekiko batez besteko gogobetetasuna goi-mailakoa izan da analizatutako aldi osoan eta ez du desberdintasun esanguratsurik erakusten esparru geografikoaren arabera: Arabako biztanle esleipendunek batez beste emandako 76 puntuen eta Bizkaikoek eta Gipuzkoakoek emandako 74 puntuen artean mugitzen da.

Etxebizitza motaren araberako gogobetetasun-mailaren analisiak erakusten duenez, Eusko Jaurlaritzak sustatutako alokairuko etxebizitzak dira gogobetetasun-mailarik handiena sortzen dutenak: 85,5 puntu batez beste. Alokabideren etxebizitzekiko gogobetetasunak (76,5 puntu) eta erositako etxebizitzekikoak oro har (73,4 puntu) batez besteko puntuazio oso positiboak lortzen dituzte. Biziguneren (70 puntu) eta ASAP programaren (63 puntu) etxebizitzekiko gogobetetasuna ere positiboa da, baina zertxobait txikiagoa.

4.4. grafikoa. Esleitutako etxebizitzarekiko batez besteko gogobetetasuna lurralde historikoen eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015).



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

4.3.2. Etxebizitza babestuaren kalitate/prezio erlazioaren balorazioa

Etxebizitzaren kalitate/prezio erlazioa baloratzen denean ere esleipendunen iritzia positiboa da. % 81,5en iritziz kalitate/prezio erlazioa oso ona edo nahiko ona da eta % 18ren iritziz txarra.

Emaitza horiek batez besteko puntuazio batera aldatzen baditugu, 0-100 eskala batean (erlazio oso txarra - oso ona), kalitate/prezio erlazioari buruzko emaitzako batez besteko puntuazioa 65 puntukoa da. Emaitza hori positiboa bada ere, beharrezko joera izan bide du 2007-2015 aldirian.


4.5. taula. Etxebizitzaren kalitate/prezio erlazioaren balorazioa etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015)

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
Oso ona	14,1	18,9	16,2
Nahiko ona	65,0	65,7	65,3
Nahiko txarra	15,8	14,4	15,1
Oso txarra	4,3	1,1	2,9
ED/EE	0,8	0,0	0,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
BATEZ BESTEKO BALORAZIOA. INDIZEA: 0-100	63,2	67,5	65,1

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Esleitutako etxebizitzaren kalitate/prezio erlazioari buruz egindako balorazioa aldatu egiten da etxebizitza babestua eskuratzeko erregimenaren arabera ere. Hala, Eusko Jaurlaritzaren alokairuaren esleipendunak dira puntuazio handienak ematen dituztenak (74 puntu). Alokabideren etxebizitza propioen errentariek emandako balorazioa (66 puntu) eta Biziguneren etxebizitzaren egindakoa (65 puntu) dira hurrengoak. Kalitate/prezio erlazioa 63 punturekin baloratzen dute erositako etxebizitzaren kasuan. Eta azkenik, gaur egun ASAP programaren etxebizitzetan bizi diren biztanleek eskaintako iritzia dago, 55 puntuko balorazioarekin.

4.5. grafikoa. Esleitutako etxebizitzaren kalitate/prezio erlazioaren batez besteko balorazioa




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

4.3.3. Erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzaren balorazioa

Erosketa-erregimeneko etxebizitzaren esleipendunei erreparatuta, erosteko unean finantzaketa lortzeko zailtasunak aztertuko dira. 2015eko datuek aditzera ematen dutenez, erosketa-erregimeneko lau esleipendunetik batek (% 26) zailtasunak izan ditu finantzaketa lortzeko. Proporzio hori 2013an erregistratutakoa (% 22) baino handixeagoa da.

Gipuzkoako esleipendunak izan dira finantzaketa hori lortzeko zailtasun handienak izan dituztenak, lurralde horretan elkarrizketatutako erosketa-kasuen % 37k izan baitituzte, Bizkaian % 22k eta Araban % 19k.

4.6. grafikoa. Esleitutako etxebizitza erosteko finantzaketa lortzeko zailtasunak




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Bestalde, jabetzako etxebizitza babestua duten esleipendunei kontsultatu zaie zer iritzi duten erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari buruz. Ildo horretan, % 66ri oso edo nahiko interesgarria irudituko litzaieke modalitate hori eta % 31ren iritzi ez da oso interesgarria edo batere interesgarria.

0-100 eskala batean, erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari buruzko interesa 59 puntukoa da erosketa-erregimeneko etxebizitza babestua duten biztanleen artean. Aukera hori oso neurri handian baloratzen dute Gipuzkoan jabetzako etxebizitza duten biztanleek (72 puntu).

4.7. grafikoa. Erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari buruzko interesa erosketa-erregimeneko etxebizitzaren esleipendunen artean




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

4.3.4. Alokairuan esleitutako etxebizitzaren balorazioa

Oro har, alokairuko etxebizitzaren esleipendunek adierazten dute gustura daudela esleitu zaien etxebizitza erregimen horretan esleitu izanarekin. Zehazki, % 89k adierazten dute oso edo nahiko gustura daudela errentamenduarekin, eta % 11 besterik ez dira gustura ez daudenak.

4.8. grafikoa. Esleitutako etxebizitza alokairuko izatearekiko gogobetetasuna




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Batez bestekoari dagokionez, errentamenduko esleipenarekiko gogobetetasun-maila 79,5 puntukoa da, 0-100 eskala batean, alokairu-erregimeneko esleipendunen multzoarentzat. Emaitza hori nabarmen igo da azken urteotan: 2007an 59,5 puntukoa zen eta gaur egun 79,5 puntukoa.

2015ean egiazta daiteke esleitutako etxebizitza alokairuko izatearekiko gogobetetasun-maila ASAP programako etxebizitzaren errentariak emandako 70 puntuen eta Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzaren errentariak emandako 87 puntuen artean mugitzen dela.

4.9. grafikoa. Esleitutako etxebizitza alokairuko izatearekiko gogobetetasuna




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Alokairuko merkatu babestuan bizi diren biztanleek etxebizitza babestuen beste modalitate batzuk interesgarritzat jotzeko iritzia nabarmen aldatzen da eskuratzen den etxebizitza motaren arabera. Hala, kontsultatu zaie zer iritzi duten erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari buruz. 2015eko datuek erakusten dutenez, biztanle esleipendunen % 55i oso edo nahiko interesgarria iruditzen zaie modalitate hori eta % 44ren iritzi ez da oso interesgarria edo batere interesgarria.

Biztanle esleipendunek erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari buruz erakutsi duten interesa 51 puntukoa da batez beste, etxebizitza babestua erosi duten biztanleek erakutsi dutena (59 puntu) baino txikiagoa. ASAP programan parte hartzen duten biztanleak dira modalitate hori gehien atsegin dutenak (68 puntu 100en gainean).

Bilakaerari dagokionez, erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari buruzko interesa nabarmen handitu dela dirudi. 2013an, esaterako, modalitateari buruzko interesa ez zen positiboa: 37 puntu batez beste biztanle esleipendun guztien artean, egungo 51 puntuetatik urrun samar.

4.10. grafikoa. Erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari buruzko interesa alokairuko etxebizitzaren esleipendunen artean



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).


Biztanle esleipendunei egindako inkestak erakusten du ordainketa geroratuko erosketako etxebizitzari buruzko interesa urria dela. Alokairuko biztanle esleipendunen % 45ek oso edo nahiko interesgarritzat jotzen dute ordainketa geroratuko erosketak. Bestalde, % 48k ez dute interes handirik edo batere interesik modalitate horretan.

Emaitza 0-100 eskala batera aldatzen badugu, ordainketa geroratuko etxebizitzari buruzko batez besteko interesa 40 puntukoa dela kalkula daiteke, 2014an etxebizitza babestuen eskatzaileen artean lortutakoa (65 puntu) baino txikiagoa.

Esparru geografikoari dagokienez, biztanle errentarien artean ordainketa geroratuko erosketari buruzko interesa handixeagoa da Araban (47 puntu) Bizkaian eta Gipuzkoan (36 puntu eta 38 puntu hurrenez hurren) baino.

Ordainketa geroratuko etxebizitzaren modalitateak gero eta jarraitzaile gehiago ditu Alokabideren etxebizitzaren maizterren artean edo ASAP programako familia maizterren artean.

4.11. grafikoa. Ordainketa geroratuko etxebizitzari buruzko interesa alokairuko etxebizitza babestuen esleipendunen artean




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Eta azkenik, alokairu babesteko biztanle esleipendunei kontsultatu zaie jabetza beste agente batzuekin (hala nola bankuak, sustatzaileak edo agintari publikoak) partekatuta duen etxebizitza bat eskuratzeko aukeraren inguruan. Aukera horrek ez du harrera onik alokairuko etxebizitzetan bizi diren biztanleen artean. Zehazkiago, inkesta egin zaien biztanleen % 80ren iritziz ez du interes handirik edo batere interesik. Batez besteko puntuazioa 14 puntukoa da, Etxebiden izena eman duten biztanleen artean 2014an zenbatetsitako batez bestekoa (23 puntu) baino txikiagoa.

Jabetzan eskuratzeko modalitate horrek harrera-maila urria du hiru lurralde historikoetan: 14 puntu Araban eta Gipuzkoan eta 15 puntu Bizkaian. Berriz ere ASAP programako biztanle esleipendunak dira interes handixeagoa erakusten dutenak.

4.12. grafikoa. Jabetza partekatuko etxebizitzari buruzko interesa alokairuko etxebizitza babestuen esleipendunen artean



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

4.3.5. Etxebizitzaren ezaugarriekiko gogobetetasuna


Esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasunean sakontzeko asmoz, etxebizitzaren 5 ezaugarri buruz zer iritzi duten kontsultatu zaie: etxebizitzaren tamaina eta banaketa (azalera, logela kopurua, banaketa, eta garajearen eta trastelekuaren tamaina); kalitatea eta ekipamendua (akaberaren kalitatea, isolamendua, bainugelaren eta sukaldearen ekipamendua); eraikina (kanpoko itxura, ezkaratza, eskaierak, irisgarritasuna, kokapena); ingurunea (kokalekua, inguruneke bizi-kalitatea, auzokideekiko bizikidetzatza); eta etxebizitzaren prezioa (salmenta-prezioa edo alokairuarena).

Inkestaren emaitzek aditzera ematen dute etxebizitzaren tamaina eta banaketa eta etxebizitzaren kokaleku den ingurunea direla baloraziorik onenak lortzen dituzten gaiak, batez beste 100 puntutik 76 lortzen dituzte-eta.

Eraikinarekiko gogobetetasuna (65 puntu) eta erosita zein alokairuan esleitutako etxebizitzaren prezioarekiko gogobetetasuna ere (62 puntu) onak dira.

Azkenik, kalitatea eta ekipamendua (56,6 puntu) da balorazio baxuenak lortzen dituen alderdia.

4.13. grafikoa. Esleitutako etxebizitza babestuaren ezaugarriekiko batez besteko gogobetetasuna



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).


4.6. taula. Esleitutako etxebizitzaren ezaugarriekiko batez besteko gogobetetasuna etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015)

Batez besteko gogobetetasuna (0-100 indizea)	Erosketa	Alokairua	Guztira
ETXEBIZITZAREN TAMAINA ETA BANAKETA	73,3	79,6	76,1
KALITATEA ETA EKIPAMENDUA	54,5	58,9	56,5
ERAIKINA	61,4	69,3	64,9
INGURUNEA	76,4	76,1	76,3
ETXEBIZITZAREN PREZIOA	61,1	64,0	62,4

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Bilakaerari dagokionez, etxebizitzaren tamaina eta banaketarekiko edo kalitate eta ekipamenduarekiko eta haren kokaleku den ingurunearekiko gogobetetasun-mailak arinki gora egiten duela ikus daiteke. Eraikinari buruzko iritziak behera egin duela dirudi, baina kontuan izan behar da edizio honetan merkatu libreko alokairu babestuko etxebizitza-parkea ere sartu dela inkestan⁴.


4.14. grafikoa. Etleitutako etxebizitza babestuaren ezaugarriekiko batez besteko gogobetetasunaren bilakaera (2010-2013)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Esparru geografikoei dagokienez, etxebizitzaren ezaugarriekiko gogobetetasun-mailak antzeko samarrak dira. Halere, nabarmendu beharra dago etxebizitzaren tamaina eta banaketarekiko edo kalitate eta ekipamenduarekiko gogobetetasun-mailak hobek direla Arabako kasuen artean. Etxebizitzaren kokaleku den ingurunea, aldiz, hobeto baloratuta dago Bizkaian eta Gipuzkoan.

4.15. grafikoa. Okupatutako etxebizitzaren ezaugarriekiko batez besteko gogobetetasuna lurralde historikoen arabera




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

⁴ Inkestak egiteko aurreko prozesuetan ez ziren sartzen merkatu libreko etxebizitzetako maizterrak.

Bestalde, etxebizitzaren ezaugarriekiko gogobetetasunari buruzko iritzi desberdinak ikus daitezke etxebizitza babestuen modalitatearen arabera. Zehazki, iritzi desberdinak ikus daitezke etxebizitzaren tamaina eta banaketa, kalitatea eta ekipamendua edo salmentako zein alokairuko etxebizitzaren prezioa bezalako alderdietan.

Etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabeko konparazioa eginda, erosketako etxebizitzek alokairukoek baino batez besteko balorazio txikiagoak lortzen dituztela ikus daiteke. Eta alokairukoen artean nabarmentzekoa da Bizigune eta ASAP programetako etxebizitzaren kalitate eta ekipamenduekiko gogobetetasun-mailak txikiagoak direla.

4.16. grafikoa. Okupatutako etxebizitzaren ezaugarriekiko batez besteko gogobetetasuna etxebizitza motaren arabera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

4.4. Esleitutako etxebizitzetan izandako arazoak edo gorabeherak eta horien konponbidea

Biztanle esleipendunen % 52,5ek adierazten dute esleitutako etxebizitzetan arazoak edo gorabeherak izan dituztela, azken bi urteetako maila jarraiki. Etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera azaltzen duenez, arazoaren proportzioa handiagoa da erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzetan kasuan: % 56k adierazten dute gorabehera negatiboren bat izan dutela; alokairuko kasuetan proportzioa % 48koa da.

4.17. grafikoa. Esleitutako etxebizitzetan izandako gorabeherak edo arazoak. 2007-2015eko bilakaera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzetan biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

4.7. taula. Esleitutako etxebizitzetan izandako arazoak edo gorabehera negatiboak etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015)


% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
ARAZO EDO GORABEHERA NEGATIBOREN BAT IZAN DUZU ZURE ETXEBIZITZAN?			
Bai	55,8	48,4	52,5
Ez	44,2	51,6	47,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzetan biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Aurreko urteetan bezala, esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila txikiagoa da esleitutako etxebizitzekin gorabeherak izan dituztenen artean: batez besteko gogobetetasuna 69 puntukoa da gorabeherak izan dituztenen artean eta 81 puntukoa etxebizitzarekin arazorik izan ez dutenen artean.

Etxebizitzarekin izandako arazoak edo gorabehera negatiboak ez dira berdintasunez banatzen esparru geografikoaren eta okupatutako etxebizitza babestu motaren arabera. Alde batetik, Bizkaian (% 59) gainerako lurralde historikoetan baino handiagoa da gorabeheren proportzioa. Eta etxebizitza motaren arabera, nabarmentzekoa da Bizigunereren kasuan etxebizitzetan % 60k izan dituztela gorabeherak, alokairuan esleitutako gainerako etxebizitzek baino askoz ere gehiago.

4.18. grafikoa. Esleitutako etxebizitzetan izandako gorabeherak edo arazoak lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera (2015)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Arazo motari dagokionez, etxebizitzaren elementu propioetan (leihoak, zoruak, bainugela, sukalde...) izandako arazoak nabarmentzen ditu inkestak. Zehazki, gorabeherak izan dituzten familien % 75ek adierazten dute etxebizitzaren elementu propioetan izan dituztela arazoak. Bestalde, gorabeherak izan dituzten bi pertsonatik batek adierazten du eraikinaren elementu komunetan (fatxada, teilatua, ezkaratza, eskailerak...) izan dituela arazoak. Gorabeherak izan dituzten familien % 6k bizikidetzara-azazoak aipatu dituzte.

4.8. taula. Esleitutako etxebizitzekin izandako arazo edo gorabehera mota etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015)

Baiezkoen %	Erosketa	Alokairua	Guztira
ARAZO EDO GORABEHERA MOTA (BAIEZKOEN %)			
Etxebizitzaren elementu propioak	72,0	77,8	75,4
Eraikinaren elementu komunak	34,7	58,4	48,7
Bizikidetzara-azazoak	10,8	2,9	6,2
Dokumentazioa eta izapideak	4,7	0,0	2,0


* Esleitutako etxebizitzarekin arazoak edo gorabeherak izan dituztela baieztatu duten biztanleen gainean kalkulatu da %.

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Esleitutako etxebizitzarekin arazoak edo gorabeherak izan dituzten biztanleei galdetu zaie ea horiek konpontzeko harremanetan jarri diren etxebizitzaren sustatzailearekin, eta familien % 91k baietz erantzun dute.

Sustatzailearekin harremanetan jartzeari dagokionez, etxebizitzarekin edo haren elementuren batekin gorabeherak izan dituztenen emaitzak aldatu egiten dira esparru geografiko batetik bestera. Hala, proportzioa % 96koa da Bizkaian eta % 94koa Gipuzkoan, eta arazoak izan dituzten esleipendunen % 79raino jaisten da Araban.

4.19. grafikoa. Gorabehera edo arazoa konpontzeko etxebizitzaren sustatzailearekin harremanetan jarri direnak lurralde historikoen eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera




* Etxebizitzan gorabehera negatiboren bat izan duten kasuak besterik ez dira sartu.

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Arazoaren edo gorabeheraren konponbideari dagokionez, biztanle esleipendunek kasu honetan ere gogobetetasun-maila onak azaltzen dituzte langileek eskaini dieten tratuari eta adeitasunari dagokionez, 53 puntuko batez besteko puntuazioa eman baitute (gehienez 100 puntu). Arazoa konpontzeko eraginkortasunari eta lastertasunari buruzko iritzia, ordea, ez da gogobetegarria (31 eta 25 puntu batez beste, hurrenez hurren).

Jasotako arretarekiko gogobetetasunak emaitza desberdinak lortzen ditu edukitze-erregimenaren arabera. Hala, erositako etxebizitza babestua duten biztanleek askoz ere iritzi kritikoagoa dute arazoaren konponbidearen aurrean alokairuko parke babestuan bizi diren biztanleek baino.

4.20. grafikoa. Jasotako erantzunari buruzko batez besteko gogobetetasuna lurralde historikoen eta etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera




* Etxebizitzan gorabehera negatiboren bat izan duten kasuak besterik ez dira sartu.

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Denbora-ikuspegiari dagokionez, 2007 eta 2015 artean egindako inkestak erreferentziazat hartuta, nabarmendu beharra dago, oro har, langileengandik jasotako tratuari eta adeitasunari buruz urtero egiten duten balorazio positibo samarra, eta, bestalde, gorabeherak konpontzeko eraginkortasunari eta lastertasunari buruz adierazitako gogobetetasun-maila urriak.

4.21. grafikoa. Jasotako erantzunari buruzko batez besteko gogobetetasunaren bilakaera (2007-2015)




* Etxebizitzan gorabehera negatiboren bat izan duten kasuak besterik ez dira sartu.

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Epe ertainerako beharraren estaldura handiagoa da erosketako kasuetan alokairukoetan baino. Alabaina, esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila handiagoa da alokairuko etxebizitza duten biztanleen artean erositakoa dutenen artean baino.

4.22. grafikoa. Beharraren estalduraren adierazleak eta etxebizitza babestuarekiko gogobetetasuna edukitze-erregimenaren arabera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

5. ETXEBIDEREN, EUSKO JAURLARITZAREN ETA UDALEN BALORAZIO ADIERAZLEAK ETXEBIZITZA BABESTUAK ESLEITZEKO PROZESUAN

5.1. Etxebideren balorazio orokorra

Etxebizitza babestuen esleipendun diren biztanleek balorazio positiboa egiten dute, oro har, Etxebide - Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuari buruz (eskatzaileen erregistroa, zozketak, esleipena, etxebizitzak...). 2015ean, kontsultatutako biztanle esleipendunen % 66k "oso ontzat" edo "ontzat" jotzen duten Etxebideren zerbitzua. Bestalde, % 18k "hala-holaketzat" jotzen dute zerbitzua eta % 11k zerbitzuari buruzko iritzi negatiboa dute.


Horiek horrela, parke babestuan bizi diren biztanleen Etxebideri buruzko batez besteko balorazioa 68 puntukoa da. Eraitza hori oso antzeko balioetan mantendu da 2007-2015 aldian. Gogobetetasun hori askoz ere handiagoa da Etxebiden izena eman duten biztanleek emandako batez besteko balorazioa baino (58 puntu 2014an).

5.1. taula. Biztanle esleipendunen Etxebideri buruzko balorazio orokorra (2015)

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
ETXEBIDERI BURUZKO BALORAZIO OROKORRA			
Oso ondo ari da lanean	18,2	15,1	16,8
Nahiko ondo ari da lanean	40,2	61,0	49,4
Hala-hola ari da lanean	21,2	14,1	18,1
Nahiko gaizki ari da lanean	6,0	4,9	5,5
Oso gaizki ari da lanean	7,4	2,2	5,1
Ed/Ee	7,1	2,8	5,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 INDIZEA)	65,0	71,0	67,8

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

5.1. grafikoa. Biztanle esleipendunen Etxebideri buruzko balorazio orokorra (2015)




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Lurralde historikoen arabera, 2015ean biztanle esleipendunek oso antzeko iritzia azaltzen dute: Gipuzkoa da emaitzarik onenak ematen dituen lurraldea, 70 puntuko balorazioa ematen baitu batez beste, Arabak 68 puntukoa eta Bizkaiak 66 puntukoa.

Etxebideren sistemarekiko gogobetetasunak emaitza desberdinak erakusten ditu eskuratu den etxebizitza motaren arabera. Zehazkiago, zerbitzuarekiko batez besteko gogobetetasuna 65 puntukoa da erosketako kasuen artean eta 71 puntukoa alokairuko artean. Eta alokairuko etxebizitza motaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzak errentan hartzen dituzten biztanleek emandako batez besteko 75,5 puntuen eta ASAP programako etxebizitzetan bizi diren biztanleen 58 puntuen artean mugitzen da emaitza.

5.2. grafikoa. Etxebideri buruzko batez besteko balorazioa lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

5.2. Esleipen-prozesuaren balorazioa


Esleipen-prozesuari dagokionez, etxebizitza babestuen esleipendun diren biztanleek balorazio ona eskaintzen dute kasu honetan ere. Zehazki, % 76k adierazten dute ontzat edo oso ontzat jotzen dutela esleipen-prozesua, eta iritzi negatiboak kasuen % 23an kontzentratzen dira.

Etxebizitza babestuak esleitzeko prozesuak, hortaz, 72 puntuko batez besteko puntuazioa lortzen du biztanle esleipendunen beren artean 0-100 eskalan. Dirudenez, prozedura hobetu egin da azken urteotan.

Erosketaren esleipendunen artean bildu diren iritziak (68 puntu) etxebizitzak alokairu-erregimenean eskuratu dituztenen artean jaso direnak (75 puntu) baino txikiagoak izan dira puntuari dagokienez. Nabarmendu beharra dago, alabaina, erosketa-kasu batzuetan ez dela berez etxebizitza-esleipenik izan, litekeena baita etxebizitza babestu erabiliren baten salerosketa partikularren artean egin izana.

Lurralde historikoen arabera, esleipen-prozesuari buruzko iritzia oso antzekoa da eta ez dago desberdintasun esanguratsurik.

5.3. grafikoa. Esleipen-prozesuaren balorazio orokorra etxebizitza babestuen esleipendunen artean




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Oro har, esleipendunen iritziz esleipen-prozesuak gardenak dira. Horren adierazgarri da 100 puntutik batez beste 63 eman izana. Erosketa-erregimeneko etxebizitza eskuratu dutenen iritzia zertxobait negatiboagoa da, 59 puntu ematen baitituzte batez beste. Etxebizitza babestuen errentan hartu dituzten biztanleek, aldiz, 67 puntu eman dituzte. Bilakaeraren ikuspegitik begiratuta, joera negatiboa antzematen da esleipen-prozesuaren gardentasunaren pertzepzioan: 2007an 73 puntu baino gehiago eman zituzten eta gaur egun 63.

Esleipen-prozesuak argiak eta gardenak direlako pertzepzioak 65 puntuko batez besteko adostasun-maila lortzen du Araban, 63 puntukoa Gipuzkoan eta 61 puntukoa Bizkaian. Etxebizitza motaren arabera, nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritzaren edo Alokabideren etxebizitzaren maizterren artean lortutako puntuazio onenak eta erosketetan edo ASAP programaren kasuetan lortutako puntuazio txikiagoak.

5.4. grafikoa. Esleipen-prozesuak behar bezain argiak eta gardenak izatearekiko adostasuna




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Inkestaren bitartez esleipen-prozesuari buruzko funtsezko beste alderdi batzuk ere aztertzen dira, hala nola eskainitako informazioa, entrega-epea, jasotako arreta edo beharrezko izapideak eta dokumentazioa.

Emaitzek erakusten dutenez, izapideak eta eskatutako dokumentazioa (74 puntu) eta langileengandik jasotako arreta (73 puntu batez beste) dira hobekien baloratutako alderdiak. Etxebizitza entregatzeko epearekiko gogobetetasuna 70 puntukoa da. Eta esleitutako etxebizitzari buruz jasotako informazioa da, emaitza positiboak dituen arren, puntuaziorik txikiena lortzen duen alderdia (67 puntu).

2013an lortutako datuekin konparatuta, hobekuntza arinak antzeman daitezke analizatutako alderdietako hirutan: izapideak eta dokumentazioa, jasotako arreta eta entrega-epea. Jasotako informazioak behera egin du zertxobait. Hori da, hain zuzen ere, hobetu beharreko alderdi nagusietako bat.


5.5. grafikoa. Esleipen-prozesuarekiko batez besteko gogobetetasuna etxebizitza babestuen esleipendunen artean



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Esparru geografikoen arabera, Arabako esleipendunen artean jasotako esleipen-prozesuari buruzko balorazioak beste bi lurralde historikoetan zenbatetsitakoak baino zertxobait hobek dira. Eta okupatutako etxebizitza motaren arabera, jabetzako etxebizitza babestua duten biztanleek alokatuta bizi direnek baino gogobetetasun-maila txikiagoak erakusten dituzte analizatutako 4 alderdietan.

5.6. grafikoa. Esleipen-prozesuaren funtsezko alderdiekiko batez besteko gogobetetasuna lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

5.3. Eusko Jaurlaritzak eta udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanaren balorazio orokorra

Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean egiten duen lanari buruz etxebizitza babestuen esleipendunek duten iritzia ere jaso da. Horri dagokionez, iritzia aldekoa da kasu honetan ere, batez besteko balorazioa 64 puntukoa baita (100 puntu gehienez). Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzearekiko gogobetetasun-maila handiagoa da etxebizitza alokairuan eskuratzen denean (69 puntu) erosketa-erregimeneko etxebizitza eskuratzen denean (60 puntu) baino.

Biztanle esleipendunek Eusko Jaurlaritzaren lanari buruz egindako balorazioa askoz ere handiagoa da Etxebiden izena eman duten biztanleek egiten dutena baino (47 puntu 2014an).


5.2. taula. Eusko Jaurlaritzak etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emateari begira egiten duen lanaren balorazio orokorra etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015)

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
EUSKO JAURLARITZARI BURUZKO BALORAZIOA			
Oso ondo ari da lanean	4,6	13,0	8,3
Nahiko ondo ari da lanean	49,7	59,5	54,1
Hala-hola ari da lanean	26,9	14,2	21,3
Nahiko gaizki ari da lanean	10,9	6,0	8,7
Oso gaizki ari da lanean	5,4	3,1	4,4
Ed/Ee	2,4	4,2	3,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 INDIZEA)	59,6	69,1	63,8

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean egiten duen lanari buruzko iritzia oso antzeko mailetan mantendu da 2007-2015 aldian, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan.


5.7. grafikoa. Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean egiten duen lanari buruz esleipendunek egiten duten batez besteko balorazioa lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzaren alorreko esku-hartzea egokitzeko asmoz, hobetu beharreko alderdi nagusiei buruz galdetu zaie biztanle esleipendunei. Hala, parke babestuan bizi diren biztanleek lehen tokian adierazi dute esleitutako etxebizitzaren kontrola areagotu behar dela (% 52k aipatu dute). Bestalde, % 41ek aipatu dute behar-beharrezkoa dela esleipenari buruz eskaintako informazioan eta etxebizitza babestuen eskaintzan hobekuntzak sartzeara. Esleipen-prozedura ere aipatzen dute familia esleipendunen % 40k.

5.8. grafikoa. Eusko Jaurlaritzak egungo etxebizitzaren egoera hobetzeko azpimarratu beharko lituzkeen alderdiak (2015)



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Eusko Jaurlaritzak hobetu behar dituen alderdiei buruzko aipamen-maila aldatu egiten da lurralde historikoaren arabera honako item hauen aipamen-mailetan: esleipenari buruz eskaintako informazioa neurri handiagoan adierazten da Araban eta Bizkaian, langileen arreta gehiago aipatzen da Bizkaian eta Etxebizitza-eskaintza hobetzea / Etxebizitza gehiago egitea batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan adierazten da.

5.3. taula. Eusko Jaurlaritzak egungo etxebizitzaren egoera hobetzeko azpimarratu beharko lituzkeen alderdiak lurralde historikoaren arabera (2015)

Baiezkoen %	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Esleipenari buruz eskaintako informazioa	43,2	45,7	29,8	40,5
Langileen arreta	20,0	27,5	13,4	21,2
Etxebiden izena emateko prozedura	19,6	25,6	19,9	22,2
Esleipen-prozedura	34,2	46,3	36,9	40,0
Etxebizitza-eskaintza / Etxebizitza gehiago egitea	17,7	53,8	45,4	40,6
Esleitutako etxebizitzaren kontrola	43,9	56,3	54,8	52,2
Beste zenbait	28,7	34,3	36,1	33,2

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Eusko Jaurlaritzak “Etxebiden izena emateko prozedura”, “Etxebizitza-eskaintza / Etxebizitza gehiago egitea” eta “Esleitutako etxebizitzaren kontrola” alderdiak hobetu behar dituelako pertzepzioa aldatu egiten da alokairuko eta erosketa-erregimeneko etxebizitza babestuen esleipendunen artean.

Erositako etxebizitza duten biztanleen iritziz hobetu egin behar da esleitutako etxebizitzaren kontrola eta eskaintako informazioa. Familia maizterrek uste dute hobetu egin behar dela esleitutako etxebizitzaren kontrola eta etxebizitza babestuen eskaintza.

5.4. taula. Eusko Jaurlaritzak egungo etxebizitzaren egoera hobetzeko azpimarratu beharko lituzkeen alderdiak etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015)

Baiezkoen %	Erosketa	Alokairua	Guztira
Esleipenari buruz eskaintako informazioa	42,6	37,9	40,5
Langileen arreta	22,4	19,8	21,2
Etxebiden izena emateko prozedura	25,0	18,6	22,2
Esleipen-prozedura	43,7	35,4	40,0
Etxebizitza-eskaintza / Etxebizitza gehiago egitea	39,9	42,3	40,6
Esleitutako etxebizitzaren kontrola	56,2	47,2	52,2
Beste zenbait	29,9	37,1	33,2

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Eusko Jaurlaritzari buruz eskaintako iritziaren antzekoa biltzen da biztanle esleipendunen artean udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanari buruz, 100 puntutik batez beste 60rekin baloratzen baitute (57 puntu erosketen kasuan eta 65 puntu alokairuan). Analizatutako aldirian Udalei buruzko iritzi horrek ere hobera egin duela dirudi.


Biztanle esleipendunek udalen lanari buruz egindako balorazioa kasu honetan ere handiagoa da Etxebiden izena eman duten biztanleek egiten dutena baino (44 puntu 2014an).

5.5. taula. Udalek etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emateari begira egiten duten lanaren balorazio orokorra etxebizitza eskuratzeko erregimenaren arabera (2015)

% bertikala	Erosketa	Alokairua	Guztira
UDALEI BURUZKO BALORAZIO OROKORRA			
Oso ondo ari da lanean	4,9	8,3	6,4
Nahiko ondo ari da lanean	38,1	36,1	37,2
Hala-hola ari da lanean	18,9	16,9	18,0
Nahiko gaizki ari da lanean	9,6	3,2	6,7
Oso gaizki ari da lanean	8,0	4,0	6,2
Ed/Ee	20,5	31,5	25,5
BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 INDIZEA)	57,1	65,1	60,4

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).


5.9. grafikoa. Udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanari buruz esleipendunek egiten duten batez besteko balorazioa lurralde historikoen eta etxebizitza motaren arabera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritz. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Alokairuko etxebizitzaren esleipendunek iritzi positiboagoa azaltzen dute Etxebideren esku-hartzeari eta Eusko Jaurlaritzak eta udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanari buruz.

5.10. grafikoa. Etxebideren, Eusko Jaurlaritzaren eta udalen balorazio-adierazleak etxebizitza babestuak esleitzeko prozesuan



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

6. ADIERAZLEEN ANALISIA GENERO IKUSPEGITIK

Ondoren, EAEko etxebizitzaren esleipendun diren biztanleek eskaini dituzten balorazioen analisia egingo da, inkesta egin zaien emakumeek eta gizonen eman duten informazioa berezita. Emakume esleipendunen parte-hartzea % 57,5koa izan da 2015ean eta gizonena % 43koa. Emakumeen presentzia handiagoa da Eusko Jaurlaritzaren, Alokabideren eta Biziguneren etxebizitzetan bizi diren biztanleen artean.

6.1. taula. Biztanle esleipendunen banaketa generoaren eta etxebizitza motaren arabera (2015)

% bertikala	Erosketa	Alokabide	Eusko Jaurlaritza	Bizigune	ASAP	Guztira
SEXUA						
Emakumezkoa	51,6	63,2	68,2	62,9	47,5	57,3
Gizonezkoa	48,4	36,8	31,8	37,1	52,5	42,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

6.1. Biztanle esleipendunen ezaugarriak

2015eko datuek berretsi egiten dute, berriz ere, etxebizitza babestua eskuratu duten emakumeek eta gizonen azal dutako ezaugarri soziodemografikoak antzekoak direla. Dena den, profilararen ezaugarri hauek nabarmen daitezke:

- Ez da alde esanguratsurik antzematen adinari dagokionez: EAEn etxebizitza babestuen esleipendun diren gizonen eta emakumeen batez besteko adina 40 urtekoa da bi kasuetan. Emakumeen % 40k eta gizonen % 36k 35 urte baino gutxiago dituzte.
- Jatorriz atzerritarrak diren biztanleen presentzia oso parekatuta dago: emakumeen % 88 eta gizonen % 91 nazionalitate espainolekoak dira. Emakume esleipendunen % 12 eta gizonen % 9 atzerritarrak dira jatorriz.
- Emakume eta gizon esleipendunen artean bitik bat ezkongabea da. Dena den, gizonen artean ezkonduen proportzioa handiagoa da eta emakumeen artean ugariagoak dira banantzeak edo dibortzioak.
- Familiaren batez besteko tamaina handixeagoa da emakumeen artean (etxebizitzako 2,3 pertsona batez beste) gizonen artean (2,1 pertsona) baino. Hala, emakumeen % 32k eta gizonen % 46k baieztatu dute pertsona bakarreko familia osatzen dutela.

6.1. grafikoa. Etxebizitza babestuen esleipendun diren emakume eta gizonen ezaugarri soziodemografikoak




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Enpleguari eta egoera ekonomikoari buruzko datuei dagokienez, emakumeen artean txikiagoak dira landunen mailak, baita soldata-maila ere. Zehazkiago:

- Gizon esleipendunen % 51 lanean ari dira; emakumeen artean % 44koa da proportzio hori. Lanaren behin-behinekotasuna % 21ekoa da emakumeen artean eta % 18koa gizonen artean.
- Langabezia handiagoa da gizonen artean (gizonen % 22 eta emakumeen % 17), baina biztanleria ez-aktiboa askoz ere handiagoa da emakumeen artean.
- Etxebizitza babestuen esleipendun diren gizonen hileko diru-sarrerara garbien maila 1.400 eurokoa da eta emakumeena 1.300 eurokoa.
- Gaur egun etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko zailtasunak dituztela adierazten duten emakume esleipendunen proportzioa handixeagoa da: hala adierazi dute emakumeen % 24k eta gizon esleipendunen % 21ek.
- Inkestak aditzera ematen du ez dagoela alde esanguratsurik laguntza ekonomikoak dituzten pertsonen proportzioan: esleipendun diren emakume eta gizonen % 20k prestazio ekonomikoren bat jasotzen dute.

6.2. grafikoa. Etxebizitza babestuen esleipendun diren emakume eta gizonen lan-egoera eta baldintza ekonomikoak




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

6.2. Beharraren estaldura eta etxebizitzarekiko gogobetetasuna

Etxebizitza-beharraren estaldura kontuan izanik, EAEn etxebizitza babestuen esleipendun diren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun nagusiak azalduko dira ondoren:

- Etxebizitza babestua duten emakumeen % 49rentzat egungo etxebizitza familia-unitatearen lehenengoa izan da eta % 51ren kasuan esleitutako etxebizitzak ohiko etxebizitza aldatzeko aukera eman die.
- Gizonezkoen artean, lehenengo etxebizitza eskuratu dutenak gehixeago dira: inkesta egin zaienen % 56. Gizonen % 44k etxebizitza nagusia aldatu dute.
- Esleitutako etxebizitzak epe ertainerako (5-10 urte) etxebizitza-beharrak betetzen dituelako pertzepzioa txikiagoa da emakumeen artean (% 78) gizonen artean (% 88) baino.
- Emakumeen % 19k adierazten dute egungo etxebizitzak ez dituela estaltzen epe ertainerako beharrak; proportzioa % 10ekoa da gizonen artean.

6.3. grafikoa. Gizon eta emakume esleipendunen artean ase den etxebizitzaren behar mota




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Oro har, nabarmentzekoa da esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila handiagoa dela emakumeen artean gizonen artean baino. Ondoren desberdintasun nagusiak azpimarratzen dira:

- Etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila oso positiboa da bi kasuetan, baina emakumeek maila handixeagoa azaltzen dute. Batez bestekoari dagokionez, gogobetetasuna 77 puntukoa da emakumeen artean eta 72 puntukoa gizonen artean.
- Esleitutako etxebizitzaren kalitate/prezio erlazioaren balorazioa antzekoa da etxebizitza babestuen esleipendun diren emakumeen eta gizonen artean: 66 puntu eta 64 puntu batez beste, hurrenez hurren.
- Etxebizitzaren ezaugarriekiko gogobetetasun-mailaren analisi zehatzak erakusten bide duenez, esleipendun diren emakumeen iritziak gizonen artean lortutakoak baino zertxobait positiboagoak dira etxebizitzaren kokaleku den inguruneari eta haien prezioari dagokienez:
 - Esleitutako etxebizitzaren tamainarekiko eta banaketarekiko gogobetetasuna oso positiboa da emakumeen artean (77 puntu) eta gizonen artean (75 puntu).
 - Etxebizitzaren kalitateari eta ekipamenduari buruzko alderdiak dira, oraindik ere, bi kasuetan gogobetetasun-mailarik txikiak lortzen dituztenak: 58 puntu batez beste emakumeen artean eta 54 puntu gizonen kasuan.
 - Eraikinarekiko gogobetetasuna 66 puntukoa da batez beste emakumeen kasuan eta 63 puntukoa gizonen artean.
 - Emakumeek (80 puntu) baieztatzen dute gizon esleipendunak (72 puntu) baino gusturago daudela etxebizitzaren kokaleku den ingurunearekin.
 - Etxebizitzaren (erosia zein alokatua) prezioarekiko batez besteko gogobetetasuna 63 puntukoa da emakumeen artean eta 61 puntukoa gizonen artean.

6.4. grafikoa. Esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasuna generoaren arabera




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Erosketa-erregimeneko etxebizitzaren esleipendunen artean, inkesta egin zaien gizonetako emakumeek baino gehiago aipatu dituzte finantzaketa eskuratzeko zailtasunak. Zehazkiago, gizonen % 37k eta emakumeen % 16k baieztatu dute egoera horretan egon direla esleitutako etxebizitza erosterakoan.

Erosketa-erregimeneko esleipendunen artean erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari buruzko interesa baloratzerakoan ez da desberdintasun esanguratsurik antzematen, emaitzako batez besteko interesa oso antzekoa baita emakumeen (61 puntu) eta gizonen (57 puntu) artean.

6.5. grafikoa. Erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitzaren balorazioa generoaren arabera




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Emaitzek desberdintasun esanguratsuak erakusten dituzte biztanle esleipendunen generoaren arabera alokairuko etxebizitza babestua baloratzerakoan.

- Etxebizitza alokairuan esleitu izanarekiko batez besteko gogobetetasun-maila handiagoa da emakumeen artean (81 puntu) gizonen artean (76,5 puntu) baino.
- Emakumeek (56 puntu) gizon errentariak (40,5 puntu) baino interes handiagoa erakusten dute erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari dagokionez.
- Aldi berean, emakumeek ere gizonak baino interes handixeagoa erakusten dute ordainketa geroratuko etxebizitza aintzat hartzean: 45 puntu eta 32 puntu hurrenez hurren.
- Jabetza partekatuko etxebizitzari buruzko interesa oso urria da bi kasuetan: batez besteko indizea 16 puntukoa da emakumeen artean eta 11 puntukoa gizonen artean.

6.6. grafikoa. Alokairuan esleitutako etxebizitzaren balorazioa generoaren arabera




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Esleitutako etxebizitza babestuekin izandako arazoaren eragin-maila berbera izan da emakumeen eta gizonen artean, bi esleipendunetik batek arazoak izan baitzituen, eta gehienak sustatzailearekin harremanetan jarri ziren gorabeherari konponbidea aurkitzeko (emakumeen % 91 eta gizonen % 90). Etxebizitzan izandako arazo motan ere ez da desberdintasun esanguratsurik antzematen: kasu gehienetan etxebizitzaren elementu propioetan izandako gorabeherak aipatzen dira.

Eta jasotako erantzunarekiko gogobetetasunari dagokionez, emakumeek zein gizonak positiboki baloratzen dute langileen tratua eta adeitasuna, baina iritzi negatiboa azaltzen dute erantzunaren eraginkortasunari eta lastertasunari buruz.

6.7. grafikoa. Etxebizitzan izandako gorabeherak eta horien konponbidea generoaren arabera




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

6.3. Etxebidaren, Eusko Jaurlaritzaren eta udalen balorazioa esleipen-prozesuan

Etxebizitza babestuen esleipendun diren emakumeek zein gizonek positiboki baloratzen dute Etxebidaren zerbitzua: batez beste 68 puntu ematen dizkiote bi kasuetan. Gutxi gorabehera bi pertsonatik batek ontzat jotzen du zerbitzua.

6.8. grafikoa. Etxebidaren balorazio orokorra generoaren arabera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).


Esleipen-prozesuari dagokionez, balorazioa oso ona izan arren, emakumeek gizonen baino iritzi hobea azaltzen dute. Zehazkiago, batez besteko balorazioa 74 puntukoa da emakumeen artean eta 68 puntukoa gizonen artean.

Esleipen-prozesuak argi eta garden samarrak direlako pertzepzioa antzeko samarra da: 63 puntu batez beste emakumeen artean eta 61,5 puntu gizonen artean.

Esleipen-prozesuaren alderdiei buruz bildutako iritzia zertxobait hobea da emakumeen kasuan gizonen artean baino. Esleitutako etxebizitzari buruz jasotako informazioa da gogobetetasun-mailarik txikiena lortzen duen alderdia: 69 puntu emakume esleipendunen artean eta 64 puntu gizonen artean.

Langileek jasotako arretak eta izapideek eta eskatutako dokumentazioak gogobetetasun-maila txikiagoak lortzen dituzte gizonen artean.


6.9. grafikoa. Esleipen-prozesuaren balorazioa generoaren arabera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Eta amaitzeko, inkestatik ondoriozta daitekeenez, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean egiten duen lanarekiko gogobetetasun-maila oso antzekoa da. Batez besteko balorazioa 64 puntukoa da emakumeen artean eta 63 puntukoa gizonen artean. Eta gauza bera gertatzen da udalen lana baloratzen dutenean: 61 puntu ematen dituzte emakumeek eta 60 puntu gizonen artean.


6.10. grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren eta udalen lanaren balorazio orokorra generoaren arabera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

Biztanle esleipendunen iritziz, esleitutako etxebizitzaren kontrola da hobetu beharreko alderdi nagusia, eta hala adierazten dute emakumeen % 51k eta gizonen % 54k. Etxebizitza-eskaintza edo etxebizitza gehiago egitea da, emakumeen iritziz, hobetu beharreko bigarren alderdia. Gizonek, ordea, esleitutako etxebizitzari buruz eskainitako informazioa berrikusi beharra aipatzen dute.


6.11. grafikoa. Eusko Jaurlaritzak egiten duen lanean hobetu beharreko alderdi nagusiak generoaren arabera



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

EAEEn etxebizitza babestua eskuratu duten emakumeen eta gizonen balorazioak oso antzekoak dira.

6.12. grafikoa. Biztanle esleipendunei buruzko adierazleak, genero-ikuspegitik begiratuta



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

7. ONDORIO NAGUSIAK ETA HOBETZEKO GOMENDIOAK, ESLEIPENDUNEN IKUSPEGITIK BEGIRATUTA

EAEko etxebizitza babestuen esleipendun diren biztanleen artean egindako kontsultari esker, honako ondorio hauek atera daitezke:

a) Erosketa-erregimeneko eta alokairuko etxebizitza babestuen esleipendun diren biztanleek profil soziodemografiko eta ekonomiko desberdinak erakusten dituzte

Biztanle esleipendunen profil soziodemografikoak ezaugarri bereizgarriak erakusten ditu eskuratu den etxebizitza motaren arabera hainbat alderditan: generoa, pertsona titularren adina, nazionalitatea, egoera zibila, etxebizitzan bizi den pertsona kopurua, egungo lan-egoera eta ordainketei aurre egiteko zailtasunak.

- Etxebizitza babestuen titular diren emakumeen presentzia handiagoa da alokairu babestuko parkean (% 64) erosketa-erregimeneko etxebizitzetan (% 52) baino.
- Alokairuaren esleipendun diren biztanleen batez besteko adina (47 urte) erosketa-erregimenekoena (35 urte) baino dezente handiagoa da.
- Erosketa-erregimeneko etxebizitzaren esleipendunen % 71 ezkongabeak dira; proportzioa % 39koa da etxebizitza babestuen errentarien artean.
- Bananduta edo dibortziatuta dauden biztanleak, aitzitik, alokairuko titularren % 20 eta erosketa-erregimenekoena % 4 dira.
- Familiaren batez besteko tamaina txikiagoa da erosketako kasuetan (etxebizitzako 2 pertsona) alokairukoaren artean (etxebizitzako 2,5 pertsona) baino. Eta esparru geografikoen arabera, Arabako familia esleipendunen tamaina handiagoa nabarmentzen da (etxebizitzako 2,7 pertsona batez beste).
- Erosketa-erregimeneko etxebizitza babestua duten biztanleen % 59k kontratu finkoa dute; errentarien artean proportzio hori % 19koa besterik ez da.
- Langabezian dauden biztanleak % 26 dira alokairuko titularren artean eta % 13 erosketako kasuetan.
- Jabetzako etxebizitza babestua duten biztanleen egungo hileko batez besteko diru-sarrerak 1.651 eurokoak dira, eta alokairuko kolektiboarenak 940 euro garbikoak.
- Maizterren diru-sarreraren maila Biziguneko kasuen hileko 855 euroko batez bestekoaren eta ASAP programako biztanleen 1.514 euroen artean mugitzen da.
- Alokairu babestuko etxebizitzan bizi diren biztanleen % 40k baieztatzen dute zailtasunak dituztela une honetan etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko; proportzioa % 9,5koa da jabetzako etxebizitza babestua duten familien artean.
- Hala, alokairuko etxebizitza babestua duten familien % 35ek baieztatzen du laguntza ekonomikoren bat jasotzen duela, etxebizitza propioa duten familien % 7k bezalaxe.

b) Esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasun handia, baina arazoan konponbidea hobetzeko premia

Esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila oso handia da erositako zein alokatutako etxebizitzaren esleipendun diren familien artean. Halere, datuek baieztatzen dute epe ertainerako behararen estaldura handiagoa dela erositako kasuetan alokairukoetan baino. Esleitutako etxebizitzaren ezaugarriekiko gogobetetasuna handiagoa da alokairuko etxebizitzaren babestua duten biztanleen artean erositakoa dutenen artean baino. Eta gorabehera edo arazoan maila handiagoak hautematen dira erositako parkean, baita arazoaren konponbideari buruzko balorazio txarragoak antzeman ere.

- Emaitez desberdintasun esanguratsuak erakusten dituzte etxebizitzaren motaren arabera familia-unitatearen lehenengo etxebizitzaren den galdetzean. Hala, erosketa-erregimeneko etxebizitzaren eskuratu duten familien % 69rentzat etxebizitzaren hori familia-unitatearen lehenengoa zen. Alokairu babestuko parkean, etxebizitzaren aldaketa izan da estali den behar nagusia (kasuen % 67).
- Erosketa-erregimeneko edo alokairuko etxebizitzaren eskuratzeko baldintzatu egiten du esleitu dioten etxebizitzaren gaur egun epe ertainerako etxebizitzaren beharrei erantzuten dielako pertzepzioa (5-10 urte). Estali den behar nagusia erosketa-erregimeneko familien % 86ra eta alokairukoaren % 78ra iristen da.
- Okupatutako etxebizitzarekiko gogobetetasun orokorra oso handia da (100 puntutik 75), baina handixeagoa da alokairuko kasuen artean (76 puntu) erosketa-erregimenekoetan (73 puntu) baino.
- Eta gauza bera gertatzen da etxebizitzaren kalitate/prezio erlazioarekin: erosketa-erregimeneko biztanleek 63 puntu ematen dituzte eta alokairukoek 67,5 puntu.
- Ingurunea, etxebizitzaren tamaina eta haren banaketa dira hobekien baloratutako alderdiak; aitzitik, kalitateari eta ekipamenduari dagozkie gogobetetasun-mailarik txikiak, nahiz eta positiboak izan.
- Erosketa-erregimeneko etxebizitzaren babestuen 4 esleipendunetatik batek baieztatzen du arazoak izan dituela edo izan zituela finantzaketa eskuratzeko; proportzioa % 37raino igotzen da Gipuzkoan.
- Etxebizitzaren jabe diren familiek erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari buruz duten interesak emaitza desberdinak erakusten ditu esparru geografikoaren arabera. Gipuzkoako biztanleak dira modalitate horri buruzko interes handiena erakusten dutenak.
- Alokairuko etxebizitzaren eskuratzeko gogobetetasun-maila oso handia da (100 puntutik 79,5), eta nabarmen egin du gora 2007-2015 aldirian.
- Esleitutako etxebizitzaren alokairuko izatearekiko gogobetetasun-mailak emaitza desberdinak lortzen ditu eskuratu den etxebizitzaren motaren arabera. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzetan bizi diren familiek erakusten dute gogobetetasun-mailarik handiena.
- Alokairu babestuko parkeko etxebizitzetan bizi diren familiek etxebizitzaren babestuko beste modalitate batzuk interesgarritzat jotzea, hala nola erosteko aukera eskaintzen duen alokairuko etxebizitzaren, ordainketa geroratuako etxebizitzaren eta jabetza partekatuko, nabarmen aldatzen da bizi diren etxebizitzaren motaren arabera. Izan ere, ASAP programako etxebizitzetan bizi diren familiak dira interes handiena azaltzen dutenak.
- Etxebizitzaren ezaugarriekiko gogobetetasunari buruzko iritzi desberdinak ikus daitezke etxebizitzaren babestuen modalitatearen arabera. Zehazki, iritzi desberdinak ikus daitezke etxebizitzaren tamaina eta banaketa, kalitatea eta ekipamendua edo salmentako zein alokairuko etxebizitzaren prezioa bezalako alderdietan.
- Kontsulta egin zaien % 52,5ek adierazten dute esleitutako etxebizitzarekin gorabehera negatiboren bat izan dutela; dena den, kolektibo horretan positiboa izan da etxebizitzarekiko gogobetetasun-maila (69 puntu). Gorabehera nagusiak etxebizitzaren elementu propioekin zerikusia dute.

- Esleipendun gehienak etxebizitzaren sustatzailearekin harremanetan jarri dira gorabeherari konponbidea aurkitzeko. Kasu horietan positiboki baloratzen dute langileek eskaintako arreta, baina ez konponbidea aurkitzeko lastertasuna eta eraginkortasuna.

c) *Etxebizitza babestuen esleipenean inplikaturako erakundeei buruzko balorazio ona, eta esleitutako etxebizitzaren kontrola eta esleipendunei eskaintako informazioa hobetzeko premia*

Alokairuko etxebizitzaren esleipendunek Etxebiden izena eman duten biztanleek baino iritzi positiboagoa azaltzen dute Etxebideren esku-hartzeari eta Eusko Jaurlaritzak eta udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lanari buruz.

- Etxebizitza babestuen esleipendunek oso balorazio positiboa eskaintzen dute Etxebideri buruz; batez besteko puntuazioa handiagoa da alokairuko etxebizitza babestuetan bizi diren familien artean (71 puntu) erosketa-erregimeneko artean (65 puntu) baino.
- Esleipen-prozesua ere egoki baloratzen dute familia esleipendunek. Kasu honetan ere batez bestekoa handiagoa da alokairuko kasuetan (75 puntu) erosketakoetan (68 puntu) baino.
- Biztanle esleipendun gehienek iritzi positiboa esleipen-prozesuak argiak eta gardenak dira. Batez besteko puntuazioa txikixeagoa da erosketako kasuen artean, baina familia horietako batzuek ez dute esleipen-prozesuan parte hartu, zenbait kasutan etxebizitza babestuaren salerosketa partikularren artean egin baita.
- Etxebizitza entregatzeko epea eta jasotako arreta oso ongi baloratzen dituzten esleipen-prozesuaren alderdiak dira. Esleitutako etxebizitzari buruz jasotako informazioarekiko gogobetetasun-maila ere ona da, nahiz eta ez den hain ongi baloratzen. Erosketa-erregimeneko esleipendunek alokairukoekin baino puntuazio txikiagoak ematen dituzte alderdi horietan.
- Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren alorrean egiten duen lanarekiko gogobetetasuna handiagoa da maizterren artean (69 puntu) etxebizitza erosita eskuratu duten familien artean (60 puntu) baino. Dena den, bi kasuetan balorazioak handiagoak dira Etxebiden izena eman duten biztanleek eskaintakoak baino.
- Esleitutako etxebizitzaren kontrola, esleitutako etxebizitzari buruz eskaintako informazioa eta etxebizitza-eskaintza dira esleipendunen iritzi positiboa Eusko Jaurlaritzak hobetu behar dituen alderdi nagusiak.
- Udalek etxebizitzaren alorrean egiten duten lana ere hobeto baloratzen da alokairuan esleitutako kasuen artean (65 puntu) erosketa-erregimeneko artean (57 puntu) baino. Bi kopuruak Etxebiden izena emandako biztanleen artean zenbatetsitakoak baino askoz ere handiagoak dira.

d) Genero-ikuspegiaren adierazleak

Oro har, etxebizitza babestuen esleipendun diren emakumeek eta gizonek oso antzeko balorazioak egiten dituzte esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasunari buruz edo erakunde publikoek etxebizitzaren alorrean egiten duten lana aztertzerakoan.

- Profil soziodemografikoa antzeko samarra da: ezkonduen proportzioa handiagoa da gizonen artean eta bananduta edo dibortziatuta daudenek pisu handiagoa dute emakumeen artean.
- Lan-egoerari dagokionez, lanean ari direnak gehiago dira gizonen artean (gizonen % 51 eta emakumeen % 44).
- Gizonen diru-sarreraren maila emakumeena baino handiagoa da: gizonen batez besteko soldata 1.399 eurokoa da eta emakumeena 1.308 eurokoa.
- Etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko zailtasunak handiagoak dira elkarriketa egin zaien emakumeen artean gizonen artean baino.
- Egungo etxebizitzak epe ertainerako beharra estaltzen duelako pertzepzioa handiagoa da gizonen artean (% 88) emakumeen artean (% 78) baino.
- Ez dago desberdintasun esanguratsurik esleitutako etxebizitzarekiko gogobetetasunean, batez besteko puntuazio oso positiboak ematen baitituzte bi kasuetan: 77 puntu emakumeek eta 72 puntu gizonek.
- Esleitutako etxebizitzaren kalitate/prezio erlazioari buruz egiten duten balorazioa ere oso berdintsua da: 66 puntu emakumeek eta 64 puntu gizonek.
- Erosketa-erregimeneko etxebizitza eskuratu duten gizonek baieztatzen dute emakumeek baino arazo gehiago izan dituztela finantzaketa eskuratzeko (erosketa-erregimeneko emakume esleipendunen % 16k baieztatzen dute finantzaketa eskuratzeko zailtasunak izan dituztela; proportzioa % 36,5ekoa da gizonen kasuan).
- Alokairu babestuko kasuen artean, erosteko aukera eskaintzen duen alokairuari eta ordainketa geroratuko etxebizitzari buruzko interesa handixeagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.
- Esleipen-prozesuarekiko gogobetetasuna oso antzekoa da (68 puntu batez beste emakumeen eta gizonen artean).
- Etxebiderekiko, Eusko Jaurlaritzarekiko eta udalekiko gogobetetasuna oso antzekoa da eta ez du desberdintasun esanguratsurik erakusten.

7.1. taula. Etxebideren bitartez egiten den etxebizitza babestuen esleipenari buruzko ebaluazio-adierazleen laburpen-taula (2007-2015)

	2008	2009	2010	2012	2013	2015
ESLEITUTAKO ETXEBIZITZAREKIKO BATEZ BESTEKO GOGOBETETASUNA (0-100 indizea)	77,3	75,4	68,8	74,6	75,2	74,6
ALOKAIRUAN ESLEITZEAREKIKO BATEZ BESTEKO GOGOBETETASUNA (0-100 indizea)	65,7	65,3	63,6	67,9	75,7	79,5
ETXEBIZITZAREN KALITATE/PREZIO ERLAZIOAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 INDIZEA)	80,9	73,9	67,7	66,6	68,2	65,1
ETXEBIZITZAN GORABEHERA NEGATIBOAK IZATEA (baiezkoen %)	66,9	63,6	65,0	47,3	51,4	52,5
GORABEHERA KONPONTZEKO JASOTAKO TRATUAREN/ADEITASUNAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 indizea)	55,5	49,3	56,4	40,9	56,4	52,8
GORABEHERA KONPONTZEKO ERAGINKORTASUNAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 indizea)	31,1	34,3	32,7	22,6	30,3	31,3
GORABEHERA KONPONTZEKO LASTERTASUNAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 indizea)	31,0	32,7	26,6	19,2	24,9	25,0
ESLEIPEN-PROZESUAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 indizea)	69,7	67,7	63,1	71,3	70,2	71,6
ESLEIPEN-PROZESUEN GARDENTASUNAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 indizea)	68,3	66,9	62,5	70,6	63,9	62,6
ETXEBIDERI BURUZKO BATEZ BESTEKO BALORAZIO OROKORRA (0-100 indizea)	67,0	67,2	68,6	67,5	67,9	67,8
EUSKO JAURLARITZARI BURUZKO BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 indizea)	65,1	63,7	64,0	61,4	61,3	63,8
UDALEI BURUZKO BATEZ BESTEKO BALORAZIOA (0-100 INDIZEA)	58,4	57,6	57,6	59,3	60,4	60,4

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkesta (2015).

e) Hobetzeko gomendioak

EAEko etxebizitzaren biztanle esleipendunei egindako inkestaren emaitzak erreferentziatuz hartuta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak honako proposamen hauek planteatzen ditu etxebizitza babestuen esleipena hobetzeko:

- Jarraipen berezia egitea etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko zailtasun ekonomikoak dituzten esleipendunen kolektiboari, bereziki alokairu babestuaren parkean, familien % 40 hartzen baitu (% 48 Biziguneren maizterren artean), nahiz eta zati garrantzitsu batek laguntza ekonomikoak jasotzen dituela baieztatu duen.
- Erosketa-erregimeneko esleipendunen artean finantzaketa eskuratzeko zailtasunak murrizteko hainbat neurri aztertzea: erosketa-erregimeneko etxebizitza babestua duten familien artean lautik batek baieztatzen du finantzaketa eskuratzeko zailtasunak izan zituela.
- Eroste eta alokatzeko etxebizitza babestua eskatzen duten biztanleen artean erosteko aukera eskaintzen duen alokairua bultzatzea.
- Esleitutako etxebizitzaren kalitatea eta ekipamendua hobetzeko aukera aztertzea, bereziki merkatu libreko alokairu babestuko parkean (Bizigune eta ASAP programak).
- Esleitutako etxebizitzetan gorabehera eta arazo maila murriztea eta etxebizitza-parke babestuan sortutako arazo konponbidea eta arreta hobetzea, batez ere erosketa-erregimeneko etxebizitzaren kasuan. Arreta berezia eskaini behar zaie etxebizitzaren elementu propioetan izandako arazoei, nabarmen murrizten baitituzte etxebizitzarekiko gogobetetasun-mailak.
- Esleitutako etxebizitzari buruz eskainitako informazioa hobetzea, gogobetetasun-maila txikiak lortzen dituen esleipen-prozesuari buruzko alderdia da-eta.

- Esleitutako etxebizitzaren kontrola areagotzea, eskaintako informazioa hobetzea eta etxebizitza-eskaintza handitzea; horiek dira esleipendunen iritziz hobetu behar diren hiru alderdiak.
- Esleipendunek zuzenean azaldutako iritzi horien aurrean, aitortu beharra dago, erabilgarri dauden datuetan oinarrituta, parkea ikuskatzen ahalegin handia egiten ari dela, baina beharbada hobeto aditzera eman beharko dela, eta etxebizitza-eskaintza handitzea etxebizitzaren esparru eskusiboa gainditzen duten jatorri ekonomikoko aldagaien mende dagoela. Horrenbestez, pentsa daiteke hobetzeko jarduketa berehalako eta operatiboenak, aurreko biak ahaztu gabe, esleipendunei ematen zaien informazioa hobetzearekin zerikusia izan dezakeela.

